ELGOBAR - 722. zenb. - XVII urtea - 2009-12-18

B
BARREN

# Daukanak Gabon, ez daukanari emon



aldaz
hortz klinika

Aldaz hortz klinikak
jai zoriontsuak eta
Urteberri on
2010
opa dizue

Ola kalea 10
LASARTE-ORIA
San Bartolome kalea 22
ELGOIBAR
Tel.: 943 366 377



# MERKATU PLAZA

*Uste duzuna baino gehiago!*



**Amaia** FRUTADENDA



**MARI** HARATEGIA




**Zabala**
URDAITEGIA eta ARDANDEGIA



**Arantxa** eta **Marian**
FRUTADENDA



**M. Angeles**
FRUTADENDA



**TXILARRE** BARAZKIAK
Elikagai ekologikoak



**Zabala** FRUTADENDA

*Gabon zoriontsuak denoi!*



Belaustegi Baserria
JATETXEA
San Migel Gaina z/g · Tel. 943 74 31 02 · www.belaustegi.com
ABENDUAK 19, LARUNBATA
21:00ean dastatze-afaria. 2. jardunaldia.
Idiazabalgo gazta eta ardoak uztartzea.
Zaldi zezina, Idiazabalgo gazta eta oliba olioarekin.
Gazta-zopa, urdaiazpiko txirbilekin.
Zapo-medailoia, txakolinez, azafraiz eta Idiazabalgo gaztaz egindako xigorkiarekin.
Idi azpizuna, Idiazabal gaztaz egindako patata purearekin eta Pedro Ximenez saltsarekin.
Fruitu gorrien zopa, gazta-izozkiarekin.
Kafea.
OTAZU BODEGAK
Txartelak Belaustegi jatetxean eta
Elgoibarko Kultur Etxean salgai
Ondo pasa Gabonak eta urte berri on!
50 €




GOKI ERREFORMAK
OBRAK ETA PROIEKTUAK
Olaso pol., 15 - 68
Pab.
20870 ELGOIBAR
Tel. 943 74 28 00 / 943 74 42 23/
/ 943 74 46 40 - F 943 74 45 87
Irizar Ibilbidea, 1 behea
20570 BERGARA
Tel. 943 76 53 42
Faxa 943 76 53 16
Fatxadak
Teilatuak
Barruko obrak
ONGI iturgintza
GOKI ERREFORMAK
Bainugelen denda berria ireki dugu
Energia berriztagarriak
Klimatizazioa • Berokuntza
Gasa • Iturgintza • Erregai likidoak
EGUZKI ENERGIA
Pedro Muguruza k., 11 behea ELGOIBAR Tel. 943 254 522


Piztu LTDa
Askoz gehiago gozatuko duzu
Kalitate Handiagoa
Guztientzako Programazioa
Zerbitzu Elkarreragileak
urtarrilaren 10ean
televisión digital terrestre
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Informazio gehiago: 901 201 004

residencial
GÉMINIS

230.000 €tik aurrera
garajea eta trastelekua barne



- Etxebizitza BERRIAK
- 2 eta 3 logela
- Horma-armairuak
- Guztiz hornitutako sukaldea
- BISITATU EREDU-ETXEBIZITZA



Santa Klara kalea, 32 C - Behe solairua B

Tel. 943 74 44 67

ELGOIBAR

# Mila esker, Andoni

Badira dagoeneko 20 urte inguru Andoni Egaña ezagutu nuela. Igandean BECen ikusi nuen azken aldiz, beste 14.500 entzulerekin batera, eta beti izan dudan iritziarekin etorri nintzen etxera: gure belaunaldiak ezagutu duen bertsolaririk handienaren aurrean gaudela.

Handitasun hori ez da txapel kopuruaren arabera neurtzen, ez naiz horretaz ari. Txapela bidean geratu da, buruz aldatu da, baina txapeldun izaten jarraituko du bertsozale askoren bihotzetan. Azken finean, txapela puntu metaketa baten ondorioa besterik ez da, bertsozaleen miresmena eta maitasuna, aldiz, urte askoren ondoren jasotako uzta. Andoni txapeldun izan da plazaz plaza, herriz herri eta auzoz auzo azken bi hamarkadetan. Eta hori oso nekez errepikatuko den fenomenoa da.

Bertsolaritza gertutik jarraitzen dugunok ez gaitu egun bateko distirak itsutzen. Oholtzakideek eta ikusle guztiek ere aho batez onartu zuten Andonik hainbeste urtean egindako lana; maisutasuna erakutsi du oholtza gainean eta oholtzatik kanpo. Bere bertsogintza bikaina izan da, baina berak bertsolaritzari eskaini diona are eta handiagoa izan da, bere bizitzaren zati handi bat eskaini dio.

Azken egunotako elkarrizketetan, prestatu egin gaitu gertatu zitekeenaren aurrean, abisatu egin digu txapela beste baten buruan ikusten bagenuen, berak ez zuela minik hartuko, berak poz handia sentituko zuela belaunaldi berriari lekukoa emanez. Hainbeste aldiz esan duen bezala, oholtza gainean nahi zuen bere txapelketako ibilbidea amaitzea.

Une horretatik aurrera, dena izan zen hunkigarria. Irudi batekin geratuko naiz. Zortzi finalistak elkarri helduta, Joxe Agirre beraien artean zutelarik. Horrela ulertu dugu batzuk beti bertsolaritza, belaunaldi desberdinen arteko elkarlana, euskaraz burututako kultur ekoizpen baten alde.

Laster gure artean izango ditugu atzoko hiru protagonista: Maialen, Andoni eta Joxe, eta horiekin batera zer esan handia emango duten bi bertsolari gazte, Miren eta Uxue herritarra. Goza dezagun beraien lanaz.

Guztiagatik mila esker, Andoni, eta zorionak, Maialen, txapelak ederki ematen dizu.



German Meabebasterretxea

*"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com*

**"Gure belaunaldiak ezagutu duen bertsolaririk handiena da Andoni Egaña"**


URTARRILEAN,
GABONETAKO IRUDIAK MEDIATEKAN!



www.elgoiBARREN.net

Egin klik eta ikusiko duzu

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

# UXUE ALBERDI

**BERTSOLARIA ETA IDAZLEA**



## “Maialenek irabazi du txapela, baina berarekin batera belaunaldi oso batek ere bai”

**Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako final handiaren atarian gelditu zen Uxue Alberdi, esker txarreneko postuan, zortzigarrenean. Hala ere, gustura dago egindako lanarekin. “Txapelketa hau oso garrantzitsua izan da niretzat, kokatu dudalako bertsogintza bide baten barruan”, dio. Bide horretan Maialen Lujanbio eredu bat dela nabarmendu du, eta aitortu du ikaragarri poztu dela hernaniarrak txapela jantzi izanaz.**

**Finalean oholtza gainean egotetik pauso batera gelditu zinen. Pena, ezta?**

Ez, ez. Kanpotik begiratuta, helburua finalean sartzea edo txapela irabaztea dela pentsa dezake batek, baina nik beste modu batera sentitzen dut bertsogintza. Bertsoa egitea bera ere ez da helburu bat niretzat. Bertsoa adierazpide bat da, arte adierazpide bat, eta bertsoa lantzen dut niregandik ahalik eta hurbilen, ahalik eta gauza gehien esateko. Bide bat lantzea da kontua. Niretzako txapelketa hau oso garrantzitsua izan da, kokatu dudalako bertsogintza bide baten barruan. Bertsotan hasten zarenean, bertsoa egitea bera izaten da helburu, erronka bat den neurrian, baina behin teknika ikasita, hobetzea da helburua. Azken bi urteotan, baina, ez nuen aurrera egiterik lortzen. Ikusten nuen herriz herri nenbilela teknika hori aplikatuz, baina ez nuen ikusten nondik jo. Landu nezakeen teknika, bai, baina ez nuen ikusten zertarako, eta txapelketa honetan jabetu naiz benetan nik zertarako nahi dudan bertsoa.

**Zertarako?**

Mundua interpretatzeko, gaiak nigandik pasatuta. Horretarako, lehenengo norberak kokatu behar du bertsoaren aurrean, bertsokideen ondoan, edota edozein gairen aurrean, eta, ondoren, ahots bat bilatu esan nahi den horretarako. Horregatik, zortzigarren egin edo hogeigarren... antzera. Egia da, hala ere, denoi gustatzen zaigula besteek ondo baloratzea, baina garbi daukat balorazio horiek kanpoko zerbait direla, nik landu nahi dudan bidetik kanpo daudela. Horrek ez du kentzen ikaragarri poztu nauela Maialenek txapela jantzi izanak. Izan ere, nik bertsoa ulertzeko dudan modu hori aintzat hartuz gero, Maialen da bertsolari onena, aspaldidik. Areago, gure garaiko bertsolari onena da. Poztu naiz nire bertso ikuskerarekin bat etorri delako kanpotik etorri den epaia. Baina Ametsi eman baliote ere, berdin poztuko nintzateke, izugarrizko bertsolaria delako.

**Txapelketa atarian, bertsolari baten maila neurtzeko modu bakarra urte osorako detektibe bat kontratatzea zela zioen Jon Sarasuak.**

Bai. Absurdoa da-eta. “Maila” hitza bera da absurdoa. Bertsoa artea da. Bi artistaren koadro bana hartu eta nota bat jartzearen mo-

dukoa da. Zeren arabera, baina? Egia da bertsoak badauzkala objetiboki neurtu daitezkeen alderdiak, baina inportanteena, zeresana alegia, ezin da baloratu. Nola esan dezakezu honek esateko daukana inportanteagoa dela horrek esateko daukana baino? Gero, txapelketara joaten gara absurdo hori onartuta, jakina.

**Bertsoak, baina, badu txapelketaren beharra ere, ala?**

Neurri batean bai. Txapelketa egiten bada ez da, baina, lehenengo edo hamargarrena zein den jakiteko beharra dagoelako. Txapelketa egiten da bertsogintza sustatzeko eta gizartean errotzeko erreminta ona delako. Bertsogintzari gorputz bat eman dio, eta gorputz horrek balio izan du, Bertsozale Elkartearen eta bertso eskolen urteetako lanarekin batera, bertsogintzari prestigio bat emateko. Horrek, era berean, bertsogintza ikertzeko bidea ere eman du. Kontua da txapelketarekin zer irabazi dugun badakigula, baina bidean zer gelditu den ez. Txapelketan ariketa jakin batzuk neurtzen dira. Gainera, txapelketen egutegi horrek asko markatzen du. Beste edozein artetan lau urtean behin txapelketa egingo balitz, eta artista guztiak uneoro neurtuko balituzte, ariketa jakin batzuen arabera, esperimentatzeko eta gauzak lasai egiteko denbora galduko litzateke.

**Egia da txapela inoizko lehiatuen egon dela aurten. Bertsoaren piramidea eraitsi dela entzun diogu Xabi Paiari. Bat zatoz?**

Kanpotik begiratuta, bai. Hamasei urtean txapela buru batean egoteak, argi eta garbi, erpin bat markatzen du. Denok genekien bazeudela beste bertsolari on asko, baina bazirudien erpin hori gaindiezina zela. Aurten, gauza inportante bat pasatu da: belaunaldi baten errekonozimendua izan da. Maialenek irabazi du, baina berarekin batera belaunaldi oso batek ere bai. Egañak, berriz, zubi-lana egin du, kontzienteki egin ere, eta hori eskertzekoa da, utzi izan balu hutsune handia gelditu zelako.

**Zure kiniela bat etorri da emaitzarekin?**

Bai. Nire apustua Maialenen aldekoa zen. Artista bat da, bere buruari inoiz traizionatu ez diona, eta bere bidea egiten jakin duena, efektibotasunaren amuan jausi gabe. Jakin du ez kokatzen bere bertsogintza arrakasta eta porrotaren arteko dikotomia horretan. Nik garbi daukat, kapazitateagatik balitz, Maialen orain hamar urte ere txapelduna izango zela. Amets ere handia da, baina Maialen da gure garaiko bertsolari onena.

**Maialenek irabazi eta genero kontua nabarmendu dute egunkari guztiek lehen orrian.**

Bai, beste gauza askotan bezala azalean gelditzen garelako sarri. Maialenek irabazi du, baina ez emakumea delako, bertsolari handia delako baizik. Egia da sinbolikoki garrantzitsua dela emakume batek irabazi izana, orain arteko erreferente guztiak gizonezkoak zirelako, eta oraindik ere haur bati bertsolari bat imitatzeko esanez gero, *gizonarena* egiten hasten delako. Txapelketa honetan lehenengoz saio guztietan gutxienez emakume bat egon da, eta parte hartzaileen herena emakumeak izan gara. Horrek erakusten du oinarrian aldaketa bat ematen ari dela, kuantitatiboki behintzat. Jakina, gero, inkontzienteak aldatzea zailagoa izango da.

> **“Andoni Egañak zubi lana egin du, kontzienteki egin ere, eta eskertzekoa da”**

**Bertsotan ari zaretela, sarri tokatzen zaizue bizi ez dituzuenen gainean kantatzea. Entzuleak gauza jakin bat entzun nahi duela sentitzen duzunean, nola jokatzen duzu?**

Egoeraren arabera. Saiatzen naiz gai guztiak nire filtrotik pasatzen. Maialenen bidea ere horixe da. Zentzu horretan Andoni [Egaña] kamaleoiagoa dela esango nuke. Bertsoa artea den neurrian, niretzako ez dauka zentzurik entzuleak entzun nahi duen hori kantatzeak. Bertsoa ez da besterik gabe dibertsio bide bat edo bufoi lan bat. Gaitasun kontu bat da. Norbere burua traizionatu gabe, entzuleari zerbait sorraraztea da kontua. Gerta daiteke barrea sorrarazi nahi izatea edota amorrua, eta horren arabera erabakiko dugu zein hizkuntza erabili.

**Zerk merezi du kantua eta zerk ez?**

Mugiarazten zaituen edozerk merezi du kantua. Eta zerk ez? Bada, ezer esaten ez dizun horren gainean kantatzeak, teknika hutsa aplikatuta.

**Nahi dena ala errimak lagatzen duena esaten da, baina, bertsotan?**

Gaitasun hori landu behar da, baina nik uste askotan uste duguna baino gehiago esaten dugula. Hitzez esaten da gauza bat, baina gorputzak esaten du beste gauza bat, ahotsak beste bat, dardarak beste bat... Ez da bakarrik nahi duzuna baino gutxiago ez esatea, nahi duzuna baino gehiago esatea ere ez da komeni. Esan nahi den horretara doitzea da kontua.

**Bertsotarako zein doinu eta zer neurri dituzu gustukoen?**

Bakarka oso gustura aritzen naiz. Narratzen sentitzen naiz eroso, agian idatzitik natorrelako. Hamarreko txikian eta zortziko handian gustura kantatzen dut. Umorea da gehien kostatzen zaidana, batez ere txapelketan. Orain arteko umore asko badakizkit egiten, imitazioz, baina ez naiz gustura sentitzen. Horrek generoarekin badauka zerikusia. Gizonezkoen umorea unibertsala dela esan daiteke. Emakumearen umorea eremu pribatuan landu da, baina publikoki ez daukagu batzen gaituen eredu bat. *Emakumera batua* ez da sortu oraindik. Umorearena landu beharreko kontu bat da niretzat. Gertatzen zait ni gustura aritzea eta ikustea zaleek ez dutela ulertzen.

**Bertsogintza eta literatura. Zer eman dizu batak, eta zer besteak?**

Osagarriak dira. Bertsolaritzak ematen dit lagunekin batera sortu ahal izateko aukera eta etengabe edan ahal izatekoa beste sortzaileengandik. Ematen dit baita adin ezberdinetako jendearekin kantatzeko aukera, eta mundu rurala eta urbanoa eta tradizioa eta modernitatea batzeko aukera. Ematen dit baita entzuleen erantzuna bat-batean jasotzeko aukera. Arriskua ere badauka, egoera ez delako erabat kontrolatzen. Literaturak bakardade bat ematen dit, babes bat. Nahi dudanari buruz bakarrik idazteko aukera, nik nahi dudan epeetan. Bertsolaritzan askoz gehiagotan urruntzen zara egin nahi duzun horretatik.

**Ez da denbora asko zure azken lana argitaratu zenuenetik, baina badaukazu beste zerbait eskuartean?**

Bai. Idea batzuk badauzkat, eta idazteko gogoa ere bai. Ez daukat ezer garbirik, baina txapelketaren zurrunbiloa amaitzen denean jarriko naiz horretara.

**Ainara Argoitia**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: ***barren@elgoibarkoizarra.com***.

**Euskarabideko zuzendari-kudeatzaileari**

Azaroaren 24ko datarekin Euskarabideko zuzendari-kudeatzaile Xavier Azanzak ondoko adierazpena egin zuen Xorroxin Irratian, euskarazko hedabideetarako laguntzen desblokeoa dela-eta:

"Telefonoz Topaguneko zuzendariari deitu diot orain gutxi berri txarrak emateko. Atzo arte deialdia aterako dela esan diegu bai hedabideetako ordezkariei baita medioetan galdera egin digutenei. Horretarako behar den Gobernu Akordioa sinatuko zela esan dugu. Eta gaur jakin dut atzoko Gobernu saioan ez zutela onartu diru-laguntza ateratzeko behar zen akordioa. Zergatik ez zen onartu oraindik ez dakidala aitortu behar dut. Kontua da, epez hain estu ibilita, oso beltza ikusten dudala. Akaso hurrengo bileran…, ba ez dakit".

Hitz horiei erantzunez, duela urtebetetik hona Euskarabiderekin eta Azanza jaunarekin gaia lantzen gabiltzan euskarazko hedabideen ordezkariok honako hau adierazi nahi dugu gure aldetik:

1. Urte osoa jiraka eta bueltaka ibili ostean, ezin dugu sinetsi uztailean agindutako 240.000 euroak ez dituztela banatuko.

2. Kasu eta une honetan Euskarabideko zuzendari-kudeatzaileari dagokio Gobernua konbentzitzeko edo presionatzeko ardura.

3. Diru laguntza deialdia ateratzeko erabakia oraingoz Nafarroako Gobernuaren eskuetan dagoen heinean, eta egoeraren larritasuna kontuan hartuz, Euskarabideko zuzendari-kudeatzaileari eskatzen diogu, Gobernua konbentzitzeko eta presionatzeko eduki ditzakeen bide guztiak erabili ditzala, bere kargua mahai gainean jartzeraino beharrezkoa izanez gero.

Horrez gain, eta Azanza jaunak egoera erogarri hau desblokeatzen asmatuko duelakoan, agerian utzi nahi dugu beste behin ere gure prestutasuna 2010. urtean euskarazko hedabideen egoera egonkortzeko elkarlanean segitzeko.

**Oskar Zapata (Topagunea), Garbiñe Petriati (Euskarazko Hedabideak), Mikel Buldain (NafarPress)**

**Herritar zintzoak, gaizkile bihurtuta**

Pasa den astelehenean, arratsaldeko 20:00etan, Bodegon Quintin aurrean aparkaturik nuen autoa. Beste auto bat nuen alboan, ohikoa den bezala, eta klaxona sakatu nuen jabea ohartzeko. Jabea atera zen. Tabernan zegoen. Ia aldi berean udaltzaingoa agertu zen, eta beste autoko gidariari zerbait esan ondoren nigana gerturatu zen. "Es usted quien ha estado presionando el claxon?". Nik baietz erantzun nion, eta bere erantzuna, nire harridurarako, "el abuso del claxon puede ser motivo de sanción" izan zen. Nik orduan ea zer egin behar nuen galdetu nion, eta beste bide batzuk erabili behar nituela erantzun zidan. Berak bere lana ongi egiten ez bazuen, besteok zerbait egin beharko genuela erantzun nion nik, gaizki aparkatuta dauden autoak kentzea alegia. Orduan, isuna jartzearekin mehatxatu ninduen, segurtasun uhala jantzi gabe nuelako, autoa oraindik aparkalekuan nuelarik, eta nire jarrera mantentzen banuen isuna jarriko zidala (kontra egiteagatik edo izango zen), hori bai dena *castellano cervantino* zoragarri batean, nahiz eta nik behin eta berriz euskaraz egin.

Jakin al daiteke zertan ari den Udal Gobernu hau? Herritar zintzoak gaizkile bailiran tratatuz eta gure etxean arrotz sentiaraziz, gurea den hizkuntza baten mintzatu ezinik. Nahikoa da!

**J.O.I.**

**OHARRA**

BARRENek oporrak hartu ditu. Hala ere, gure argazki kamerak han eta hemen ikusiko dituzue Gabonetan. Hurrengo alea urtarrilaren 8an jasoko duzue.

Barren

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112
Faxa: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren@elgoibarkoizarra.com*
Publizitatea: ☎ 943 743 704
E-posta: *barren.publi@elgoibarkoizarra.com*

Argitaratzailea: ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Oier Narbaiza, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Oier Narbaiza PUBLIZITATEA Leire Rubio, Eneritz Lazkano MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Oihana Tarragual, Anjel Bazterretxea, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.760 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855





Angel Ugarteburu

Euskaldunok bajaukagu beste herriengandik bereizten gaituen ezaugarri bat baino gehiago; hizkera bera, besteak beste edo beste guztien gainetik. Ez gaituk hobeak, ezta txarragoak ere; gutxi garela, hori bai; herri txikia.

Hizkuntzaren barruan harrigarria, esaterako, egunotan bertsolariek eurenganatu duten arreta. Txapelketa garaiak berarekin dakarren bertso-gosea eta gozamena. Ederrena, aretoak eta kirolguneak gazte-jendez gainezka ikustea izan dok. BECen ia 15.000 entzun-ikusle aurreko igandean, horren adibide. Hanka sartzeko arrisku handi barik esan geinkek maila horretako kultura-jarduera berezirik ez dela beste inon. Bertso-munduan euskara ederra, aberatsa, entzuten dok, oro har, eta doinu ederrek sentipen sakonak adierazteko aukera ematen juek. Jardun berean arlo asko lantzeko bidea. Adimena eta sentipenak dantzan jartzen dituen hitz eta doinuzko kirol (arte) noblea inondik ere.

## “Hainbeste bertsozale ikusteaz poztu egiten gaituk”

Aurreko mendean, 80ko hamarkadan, bertso-eskoletan ilusioz gainezka hasi ginenok, mende laurdena pasa eta gero, hainbeste bertsozale ikusteaz poztu egiten gaituk. Lur onean jausten den haziak lehenago edo geroago emon egiten jok frutua, eta gazteek bertsotan gozatzea beste belaunaldi batzuetarako arnasa dok hizkuntza eta herriarentzat.

Irakaskuntzan gai hau landu izan joagu, Andres, eta lekukoa zeinek hartua badagola ikustea pozgarria dok, baina esaidak zer sentitzen den holako landare bikain bat etxean bertan ernetzen denean. Zela bizi izan dituzue txapelketa eta haren inguruko gorabeherak?



Andres Alberdi

Galdera pertsonalegia duk, inondik ere, hotz eta luze mintzatzeko, baina ez niokek muzinik egin nahi hire galderari; ez lukek elegantea izango. Labur esanda: gozatu eder askoa hartu diagu txapelketan zehar! Ezusteko gozo-gozoa izan duk, zinez; emozioak eragindako malko gaziren bat edo beste ere ezkutatu beharra izan diagu tartean-tartean. Malkoak ere gozoak izan ditiagu oraingoan.

*Etxe-barne*-koak eta *bihotz-barne*-ko sentipenak utzita, ordea, eta txapelduna nor den jakinda (irudi indartsua BECekoa! “Jo, Maialen, ze polita!”), noan txapelketak berak erne dizkidan gogoeta batzuk aipatzera, biharko bertsolaritzaren ildoa marka dezaketenak, nire ustez. Hauek, besteak beste:

Entzule kopuru ikaragarria. Aurtengo garaipenik politena saioz saio txapelketa jarraitzen ibili diren milaka jarraitzaileak izan dituk, gazteak gehienak. Errematea, BECekoa. Hori mundua *hitz soila* entzuteko!

## “Gozatu eder askoa hartu diagu txapelketan zehar!”

Bertsolari gazteek eman duten neurri bikaina. Maila bazutela, bai, baina erakutsi beharra zegok. Gazteek gogor egin ditek saio guztietan; bertsolaritza aberasten ari den seinale. 25 urte azpiko jende asko inguratu duk finaleko atarira. Txapela kentzeko moduko lana egin ditek gazteek. Emakume kopuruak eta emakumeen mailak eman zidak arreta; eta, akaburako, Maialen txapeldun. Finalaren atarian, muga-mugan, neska asko egon duk. Belaunaldi berri bat zetorrek: gaztea, ikasia eta emakumea batik bat.

Bertso-maila handia. Laborategia izaten duk txapelketa: gaien ugaria, bertsolariaren ideien borborra, tximistaren pareko irudi azkarrak, gaiak azaltzeko trebezia... Asko izan dituk buruz ikasteko moduko bertsoak, finalisten nahiz finalera iritsi ez direnen ahotik kantatuak. Plazer bihurtzerainokoa egin zaidak bertsoaren tiobiboa, eta jendeak ere hori dastatzea nahi nikek.

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DANOBAT
kutxa
GOITI
GRUPO DANOBAT

## Erretratu zaharra



**1966**

Aste honetako erretratu zaharra Consuelo Prietok ekarri du BARRENera. 1966ko abenduaren 25ean aterata dago, eliza atzeko bolatokian. Ikusten den bezala, garai hartan ere jaiotza biziduna egiten zuten. Ama Birjina, San Jose eta astoa ikusten ditugu erretratuan, dantzari eta txistulariek inguratuta. Gogora ditzagun jaiotza bizidun honetako lagunak.

**Goian:** Regina Arrieta, Jon Zubiaurre (†) , Maria Isabel Arakistain, Itziar Elortza, Blanca Agote, Mari Carmen Aizpitarte, Ana Egaña eta Begoña Iriondo. **Bigarren ilaran**: Karmele Garcia, Marga Gurrutxaga, Pello Arrieta, Carmelo Zengotita (†), Mila Sorazu, Mari Jose Arakistain, Consuelo Prieto (Ama Birjina), Amaia Urkidi, Ana Mari Zabaleta, Alicia Bilbao, Rosa Mari Martinez, Maira Luisa Urain. **Hirugarren ilaran:** Maria Luisa Zubiaurre, Ricardo Gorriti, Jon Arrieta, Montxo Prieto (San Jose), Izaskun Aizpitarte, Maite Vitores, Kontxi Juaristi. **Behean:** Jose Inazio Sarasua, Txomin Mujika eta Pedro Azpiazu.

## Gure berbak Hiztegixa: adberbixo batzuk (3)

Segidu daigun aurreko astietako gaixarekin, adberbixuen arluarekin. Hona aittatzeko moduko batzuk.

◆ **DAIXOLA:** Dariola. Lexikalizatutako forma da: odola daixola juan zan. **Babia/eldarra/dindirrixa... daixola:** *Gernikako al tzan lekutikan pasau giñan, ez kamiño normaletikan, zeatik eze zaudezen sua daixola etxiak. / Etorri etxera eskolatik, bazkaldu, eta antxitxika frontoira: izerdixa daixola eskolara. Aitxa eta ama beti errietan.*

◆ **DANIAN:** Leku guztietan. *Ez, danian gu ondo hartu gaittue oiñ artian.*

◆ **DEBALDE:** Dohainik. Baita **Duan** ere.

◆ **DEBRAZETE (helduta ibili):** Besotik helduta. Garai batean herrian horrela ibiltzea erraza ez zenez, kanpora joan behar izaten zuten bikoteek **Debrazete (helduta)** ibiltzera. **Debrezete** aldaeran ere bai. *Hi, debrazete jiezak Joxe eta Mari!*

◆ **DERREPENTE:** Berehala, bizkor. *Baguazen geure konbertzatziuan. Da euskeraz. Da erten diu (...), harek derrepente garbitxuko giñuazen, e! / Berrogei bat milloi tokau ezkero, ba, neuk pentsauko (do)t, baiña derrepente gastauko neuke.*

◆ **DERRI(G)OR:** Nahitaez, halabeharrez. *Basarrixan derrior euki bi'ozu txakurra. / –Ezagutu, ezagutuko (d)ot nik zure semia. –Derrior ezagutu bihar. / Orduan zintzua izan bi'zuan, derrior.* Baita **Derri(g)orrez** ere.

◆ **DERRI(G)ORRIAN:** Behartuta. *Derriorrian eruaten badeu, beste automobill bat ekarri bihako jok remolkian eruateko.*

◆ **DEZENTE:** **1.** zenbtz. zehaztugabea. **Dexente** ere bai. *Jende dezente batu da plazan.* **2.** Askotxo. *Saltsa-gauza zalia nok, eta dezente jate juat.* **3.** izond. Handi samarra. *Gose dezentia daukat. / Dezenteko kolpia hartu jok.*

◆ **E(D)ARKI:** Ederki. *Edarki asko eitte jok horrek euskeraz.*

◆ **E(G)UNDO:** Inoiz ez, orain arte ez; ezezko perpausetan erabiltzen da. *Eta hortantxe ibili giñan gu. Bueno, ni enitzan juan egundo. / Hori oso akontezimentu haundixa izan tzan hori barkuori, egundo holakorikan ez zan ein Deban, haiñ haundixa.*

◆ **E(G)UNIAN-E(G)UNIAN:** Egunero. Berdin, maiztasun bat adierazteko, a**stian-astian, hillian-hillian**, eta abar.

◆ **ENTSEGIDA:** Laster. **Entsegira** aldaeran ere bai. *Batzuek eitxen dabe hamendikan ezkondu kanpora, horra Azpeitxi, Azkoitxi edo Andoaiñ. Eta horrek ya, entzegira hartzen dabe hangua [hizkera].*

◆ **ESTRAIÑEKOZ:** Lehenbiziko aldiz. *20 urtekiñ ikusi najuan itxasua estraiñekoz.*

◆ **ETZIDAMU:** Etzikoaren hurrengo eguna.

◆ **GAIZKI:** Gaizki. **Geizki** aldaeran ere bai. **Gaizki bi(har) dau:** Bide onetik ez ibili.

◆ **GALANKI:** Asko, erruz. *Tabernia geunkan orduan ere, ta lana galanki ein bihar.*

◆ **GANORAZ:** Fundamentuz.

◆ **GITXI GORABERA:** Gutxi gorabehera

Jesus Mari Makazaga

**Zepoa jarrita duen auto batek aparkatzeko lekua kentzen du:** "Trenbide kalean, tren geltokiaren aldameneko aparkalekuan, auto batek zepoa du jarrita. Hilabete asko daramatza geldirik, eta aparkatzeko lekua kentzen du. Elgoibarren zailtasun handia dago aparkatzeko, eta, nire ustez, zepoa duten autoak herriaren kanpoaldean laga beharko lituzkete".





**Plaza Txikian jarri duten farola lekuz kanpo dago:** "Plaza Txikian farola berria jarri dute, baina, nire ustez, ez da egokia herriko alde zaharrean jartzeko. Ingurunea zatartu egiten du, eta horrelako detaileak zaindu egin behar direla iruditzen zait. Estilo horretako farolak gehiago dira industriaguneetarako edo futbol zeilaietarako".

**Txankakuak, Elgoibarko merkatari eta zerbitzu elkarteak, izena euskaraz dauka, baina gaztelaniari lehentasuna ematen dio:** "Aste honetan bertan jaso dut Txankakua elkartearen txartel berria, eta gutun osoa gaztelania hutsean idatzita zegoen. Irudi eta itxura kontuekin gabiltza orain ere. Izena euskaraz jarri, baina mamia gaztelaniaz".

**Guraso talde batek eskerrak eman nahi dizkio musika eskolari:** "Eskerrik asko Inazio Bereziartua musika eskolako zuzendaritzari eta irakasleei, Santa Zezilia Egunerako antolatu zenituzten ekitaldiengatik eta musika zaletasuna pizteko egiten duzuen lanagatik. Izugarri gozatu genuen".

Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:
*barren@elgoibarkoizarra.com* / 943-74 41 12



ESKERTZA

## MIREN ITZIAR ETXABE SALEGI

*Garen bezalakoak garelako,*
*zure irribarre eta indarragatik,*
*eman diguzun maitasun eta guztiagatik.*
*Ez zaitugu inoiz ahaztuko,*
*betirako gure bihotzetan.*

Familiakoen partez



*2009ko abenduaren 8an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*

# Herri ekologikoagoa eta osasuntsuagoa lortzeko alegazioak egin dizkio Plan Nagusiari Okil Beltzak taldeak

## Besteak beste, industriagune eta etxebizitza gehiago ez egiteko eskatu dute

Herri ekologikoagoa eta osasuntsuagoa lortzeko helburua duten hainbat gaztek sortu dute Okil Beltzak taldea, eta, euren nahia lortzeko bidean, alegazioak egin dizkiote Hiri Antolamendurako Plan Nagusiari. Lerun Txikin eman zuten prentsaurrekoa hilaren 11n, izan ere, hori delako babestu nahi duten inguruneetako bat.

Ingurumena eta nekazal eremuak babestea eta sustatzea da taldearen asmoa, eta, besteak beste, industriagune gehiago ez eraikitzeko eskatu diote Udalari: Lerun Txiki-Morterika, Albitxuri 2 edo Karkikano proiektuak ez direla beharrezkoak esan zuten: "Lurrik onenak industriaguneetarako erabiltzen dira", gaineratu zuten. Era berean, taldekoen iritziz, Elgoibarren ez dago etxebizitza gehiago eraikitzeko beharrik. "Espainiako Estatistika Erakundearen arabera, azken 12 urteotan 62 lagun gehiago bizi dira Elgoibarren, eta 800 etxebizitza eraiki dira. Orain beste mila etxe egiteko proposamena egin du Udalak. Norentzat?". Taldekoen iradokizunak aintzat hartzea espero dute, Plan Nagusi berria "iraunkorragoa" izan dadin.



## Madariagan agertutako hildakoarekin zerikusia dutelakoan bi elgoibartar atxilotu dituzte

Ertzaintzak bi elgoibartar atxilotu ditu, udan Madariagan (Azkoitia) aurkitu zuten hildakoarekin zerikusia dutelakoan. Ertzaintzaren arabera, Pedro Muguruza kalean hil zuten Ignacio Pascual Hernandez, 64 urteko erandioarra, Lagun enpresa zaharrean. Autopsiak argitu duenez, buruan kolpe bortitz bat jota hil zuten martxo inguruan Ignacio Pascual Hernandez, eta Bartzelonako espeleologo talde batek aurkitu zuen hilotza abuztuaren 6an, Madariagako leize batean. Azkarate gaina eta Itziar lotzen dituen Bide-Gorri izeneko kobazuloan aurkitu zuten gorpua, oihal batean batuta. Espeleologo kataluniarrek beste leize batean sartzeko asmoa zeukaten, baina eguraldi txarra zela-eta, Bide-Gorrin sartu ziren. Ertzaintzak lau hilabetez jardun du ikerketak egiten, eta abenduaren 2an atxilotu zituzten ustezko hiltzaileak.

## Presoen aldeko hainbat ekitaldi egingo dituzte Gabonetan




Presoek Espainiako eta Frantziako espetxeetan bizi duten egoera salatzeko eta presoei elkartasuna erakusteko hainbat ekitaldi egingo dituzte Gabonetan, Etxeratek antolatuta. Abenduaren 24an Olentzeroren kalejira egingo dute, 15:30ean Plaza Handian hasita, eta 25ean, azken barixakuko kontzentrazioa izango da 20:00etan. Hilaren 28tik 31ra barauladia egingo dute merkatu plaza gaineko lokalean, eta protestaldia amaitzeko, manifestazioa egingo dute hilaren 31n, 12:00etan.

Etxeratek gaixotasun larriak dituztenen eta zigorra beteta duten presoak kaleratzeko aldarrikatzen du, eta era berean, euskal presoak Euskal Herrira hurbiltzeko eskatu du.

## Protagonista IMH



Edurne Bilbaok jaso zuen Bai Euskarari saria, IMHren izenean. Euskararen normalizazioan egindako lanagatik. IMHk euskara plana eta hizkuntzak kudeatzeko sistema eratu ditu, eta hizkuntzen kudeaketarako, eta 30+10 mintegiak lortutako zabalkundeak ere eragina izan du saria jasotzeko, IMHko arduradunen arabera. Pozik agertu dira sarituak: “Guretzat ohorea da benetan, eta ikasle, irakasle, enpresa eta erakundeekin batera aurrera egiteko animoak eman dizkigu”.

## Data Urtarrilak 10

2010eko urtarrilaren 10etik aurrera telebista ikusteko derrigorrezkoa izango da Lurreko Telebista Digitalen (LTD-TDT) hargailuak edukitzea. Izan ere, telebista seinale analogikoa Gipuzkoako 21 herritan itzaliko da egun horretan, tartean Elgoibarren eta Mendaron.

## Irudia 50 urte elkarrekin

Jubilatuen Astea ospatu zuten Zaharren Biltokian hilabete hasieran, eta 2009an urrezko ezteiak egin dituzten zortzi bikote omendu zituzten. Francisco Perez eta Maravilla Aba; Jesus Rementeria eta Maria Concepcion Irusta; Luis Gonzalez eta Eudosia Rita Fernandez; Juanito Gorostiza eta Maria Consuelo Otaegi; Francisco Garcia eta Adoracion Gallego; Pedro Maximino Morales eta Vicenta Mendo; Jesus Mari Txurruka eta Esther Arrizabalaga; Jose Urrutia eta Edurne Abio. Bikote guztiek lore sorta eta oroigarri bana jaso zituzten.



### Santo Tomas eguna Altzolan

Zubibai elkarteak antolatuta, Santo Tomas eguna ospatuko dute abenduaren 20an. Eguerdiko 12:30ean hasita, salda eta txistorra pintxoak banatuko dituzte auzoko frontoian, eta aurten, berrikuntza modura, taloak ere egingo dituzte. Elkartekoek herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte festara.

### Umeentzako haur-parkea jarriko dute asteburuan

Gabonetako kanpainaren barruan, Txankakua merkatari elkarteak eta merkatu plazako Barren Azoka taldeak umeentzako parkea jarriko dute asteburu honetan Leku Ederren. Gaur, barixakua, 16:45etik 19:45era egongo da zabalik, eta bihar, goizez eta arratsaldez irekiko dute (11:00-13:15 eta 17:00-19:30).

### Gabonetako argietan iaz baino 10.000 euro gutxiago

Udalak 37.120 euro gastatuko ditu aurten Gabonetako argietan, iaz baino ia 10.000 euro gutxiago, alegia. Erdigunean jarri dituzten argiez gain, 2005ean hasitako bidetik, lau eszenografia irudikatuko dituzte Osasun Zentroaren aurrean, Leku Ederren, Urasandin eta Sigmako josteko makinaren gainean. Argiztatutako zonaldeak mantenduko dituzte baina, bakoitzean, argi-irudi gutxiago jarriko dituzte. Argiari dagokionean, aurreko urteetan bezala, kontsumo baxuko bonbillak eta argi biziagoa ematen dutenak erabiliko dituzte.



# OSASUN GIDA

## MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

*Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.*
(Pisu kontrola ,"Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Naturopatia, Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Quantum scio (estres kontrola) tarot terapeutikoa eta familia konstelazioa (banaka)
San Bartolome, 29 - Tel: 943 744 031
Egunero: 9:00-13:00 / 16:30-20:00

*Sanatana Dharma Yoga Elkartea*
Urasandi, 9
Tel: 943 748 593 (Idoia) - 685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/
18-19:30/20-21:30
*Mendaro:* Astelehen eta asteazkenetan:
10-11:30/15-16:30
Astearte eta ostegunetan: 20:00-21:30

*Pakene Ongizate intregraleko zentru berria*
(Azterketa biologikoa eta osteopatikoa, Naturopatia, Homeopatia, Fitoterapia Txinatarra, Nutrizio ortomolekularra, Elikagaien jasanezintasunak, Bach-en loreak...). Tel: 943 254 505

## FISIOTERAPIA

*Ainhoa Fisioterapia*
Eragozpen fisikorik egongo balitz,
etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.
Tel.: 943 531 953 /669 565 745
Jausoro, 6 behea. Goiz eta arratsaldez.

## OPTIKAK

*Ikus optiko-optometrista*
San Bartolome, 10
Tel: 943 743 734
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

*Uzuri*
(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)
San Frantzisko, 21
Tel: 943 740 359
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

## HORTZ KLINIKAK

*Irale*
Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)
Tel: 943 743 679
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)
Tel: 943 177 134
*irale@irale.com - www.irale.com*

*Leku eder*
Elena Herrero Lobo.
Aita Agirre enparantza, 5 behea.
Tel: 943 530 053
*lekueder@infomed.es*

*Beitia Arriola*
- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea
Tel: 943 531 869

## PODOLOGOAK

*Oinberri*
Errosario kalea, 25
Tel: 943 741 795
Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30
15:00-19:30

*Iñigo Arrillaga Yudego*
- Hanken afekzioen terapia.
- Neurrira egindako plantilak.
- Hanka diabetikoen zainketa.
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.

San Frantzisko kalea, 20 behea
Tel: 943 741 645
Ordutegia: 9:30-13:30 /15:30-19:30

## MASAJISTAK

*Victoria Iraegi*
(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea). San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) -Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera : 8:00 / 14:00

## ORTOPEDIAK

*Itziar Sarasketa*
San Frantzisko, 12
Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00



# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Asima**
Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

**Lodoso Leihoak**
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Igeltseritza

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

**Lanusta**
Etxe barruko erreformak
☎ 636 375 323

## Lorezaintza

**Pagoa loradenda**
Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307

## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

**Ibámar**
Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

**Ongi**
Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 7 • MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

**Santana iturgintza eta instalazioak**
Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44

## Autoentzako tindatutako kristalak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94

## Sarrailagintza

**Giltzak**
Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
*www.giltzak.com*

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Elektrizitatea

**Carranza**
Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Pinturak

**Biok dekorazioa S.L.**
Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

**Ku Kolorea**
Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87


Emilia Nogales
MARGOAK
Trenbide kalea 11, behea
Oparitu ezazu koadro bat gabonetan!
Emilia Nogalesek Urte Berri On bat opa dizue!
Urte berria hasteko, jantzi ezazu kamiseta edo boltsa berezi bat.


Zorionak eta urte berri on!
MAPFRE



NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA
ZELETA
BARAZKIAK
– 5.000 m² babestutako barazkigintza produkziorako
– 200 m² manipulazio eta ontziratze biltegietarako
Gabon zoriontsuak!
EUSKAL BASERRI
Ekoizpen prozesuan energia berriztagarriak erabiltzen ditugu
ZELETA
• Landareen PRODUKZIOA
• Laborantza KONTROLA
• Eskuz eginiko AUKERAKETA
• BANAKETA
• Bertako produktuetan erantzunik GERTUKOENA
ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com




Zorionak
2010
INDUSTRY LANGUAGE SERVICES
Azkue Auzoa 1 / Tel. 943 74 40 40 / Fax. 943 74 16 54 / e-mail. ils@ils.es / www.ils.es


MH
20 URTE ZUEKIN
Zorionak eta Urteberri On


BIOK
dekorazioa
Upaiz zaharra, 14
Tel.: 943 741 552 / 606 431 120
www.biokdekorazioa.com
biokdekorazioa@euskalnet.net
Gabon zoriontsuak izan!
GRADULUX
window styling
Pinturak
Berehalako koloreak
Margotutako paperak
Mihiseak
Espraiak
Estoreen gama zabala
Parket flotatzailea
Olio-pinturak
BILTEGIKO PREZIOAK



# 2009

## urteari errepasoa

BARREN



Jose Antonio Osorok eta Txomin Mujikak 25 urte bete zituzten Elgoibarko Musika Bandako zuzendari eta zuzendari-orde karguan. Hilean behin jotzen du Bandak, baina lan handia egin behar izaten dute musikariek, jende aurrean jarduteko. Urtarril hasieran egin zieten omenaldi txiki bat bi musikariei.

Mugertza Krossa: Komon eta Mosop kenyar gazteak ziren Nazioarteko Juan Mugertza Krossa irabazteko faborito nagusiak, baina Ayele Abshiro hamazortzi urteko etiopiarrak ezustekoa eman zuen. Leonard Mononek iaz egindako denbora 36 segundotan hobetu zuen Abshirok (31:18:00). Emakumezkoetan, Florence Kiplagat kenyarra gailendu zen, Kalovics hungariarraren aurretik.

















Akei baserriko *Batu*-k Gipuzkoako asto lehiaketa irabazi zuen. Ehun asto inguru egon ziren ikusgai Lazkaoko plazan, eta 82k parte hartu zuten lehiaketan (71 emek eta 11 arrek). Txomin Arriolaren astoak zortzi aldiz parte hartu du arren kategorian, eta sei aldiz irabazi du.



Iñaki San Martin *Soarte*-k Apur batean soka dantza erakusketa zabaldu zuen Urretxun. Haritz dantza taldeak San Bartolome Egunean Plaza Handian irudikatzen duen soka dantzaren inguruko erakusketa osatu zuen.

Iñaki Badiola hirugarren sailkatu zen Euskadiko Arku Tiro Txapelketan, urtarrilaren 24an. 76 arku tiratzailek parte hartu zuten: 36 biribildu mailan, eta gainerako 40 lagunek arku konposatuarekin. Badiolarekin batera, Martin Agirregomezkortak eta Joseba Fernandezek ere parte hartu zuten.




BRONyMEC
- Metal ez ferriko, plastiko tekniko eta konpositeak
- Mekanizazio lanak
Arriaga poligonoa
Ferrerías, 4
Tel. 943 742 807
Faxa: 943 742 354
www.bronymec.com
comercial@bronymec.com

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluak ezartzea
Leihadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570

USATORRE
Taberna
San Antolin, 6 Tel. 943 74 17 99
Jai zoriontsuak igaro!

MECANIZADOS S.COOP
BUKATU.
OLASO Poligono Industriala - Olasope kale, 6
66 atea - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98
20870 ELGOIBAR
E-posta: bukatu@bukatu.es - Http: www.bukatu.es



Otsailaren 4an hil zen Alberto Ortueta, IMHren eta Erreminta-Makinaren Museoaren sortzailea. Sektore horrek azken hamarkadetan izandako eragile eta bultzatzaile handienetakoa galdu zuen. Alberto Ortueta AFM Erreminta-Makina Fabrikatzaileen elkarteko zuzendari nagusia izan zen 33 urtez.




Eguneko ospitalizaziorako gune berria inauguratu zuten Mendaroko Ospitalean. Hamalau ohe izatetik 35 ohe izatera pasatu zen gunea, eta ordu gutxitan egiteko moduko tratamenduak egiteko erabiltzen dute. Osakidetzak 612.000 euroko inbertsioa egin zuen Eguneko Ospitalizazio zerbitzua hobetzeko.



Jose Luis Belloso apaizak erretiroa hartu zuen. Hamahiru urterekin erabaki zuen abade izatea, eta urte askoan izan da Elgoibarko apaiza. Euskal Herriko Apaiz Koordinakundeko kidea da: gaur egungo elizarekin kritikoa da abade talde hori. Beste eliza eredu batean sinesten dute, eta, horregatik, baztertu egin dituztela adierazi zion BARRENi.

ELGOIBARKO
HERRI ESKOLA

Eguberri
eta urte berri On!



ONCEren kupoiak 175.000 euro laga zituen Elgoibarren. Mayte Prieto loteria saltzailearen eskutik iritsi zen zortea.



Miskiren aldeko jaialdi benefikoak 1.700 euro batu zituen, otsailaren 27an egindako jaialdian. Peruko ume behartsuenei laguntzeko sortu zuten gobernuz kanpoko erakunde hori. Ion Gurrutxaren laguntza duen Expresion Sonora talde beteranoak eta Haritz euskal dantzari taldeak parte hartu zuten, besteak beste. Jaialdian bertan eta Miskik aurrez batu zuen diru-laguntzaren onurak Peruko 600 umek igarriko dituzte. 30.000 euro inguru lortzen ditu urtero Miskik, baina aurten aurrera eraman nahi dituzten proiektuentzako 32.000 eurokoa zen aurrekontua.



Unai Zulaika Ezker Batua-Berdeak taldeko zinegotziak alderdia lagatzea erabaki zuen hainbat militanterekin batera, zuzendaritzak hartutako norabidearekin ez zetorrelako bat. Hala ere, zinegotzi independiente izaten jarraitu zuen.



Arkaitz Irureta elgoibartarrak zilarrezko bi domina lortu zituen iraupen eskian. Azken urteetan mendi eskian gehiago ibili arren, 2009an iraupen eskiko lasterketetan ere parte hartu zuen Arkaitz Iruretak, eta martxoan zilarrezko bi dominarekin itzuli zen Somportetik. Gipuzkoako Txapelketako probak jokatu ziren bertan, klasiko modalitateko proba eta estilo librekoa, eta zilarrezko domina bana eskuratu zuen.





Haurtzaindegia egiteko obrak hasi zituzten Mendaroko Garagartza auzoko bizkotxeria zaharrean.186.500 euroko aurrekontua izan du obrak, eta aurtengo ikaskurtean hasi dira lanean.






Elgoibarko Eskubaloi Eskola aurkeztu zuen Sanlok. Elgoibarko Sanlo eskubaloi taldeak Eskubaloi Eskola jarri zuen martxan martxoaren 8an. Eskola hori 10 eta 12 urte bitarteko gaztetxoentzako da, bai elgoibartarrentzat zein inguruko herrietakoentzat. Umetatik kirola sustatzeko helburuarekin sortu zuten, eta bide batez, kirolari lotutako baloreak zabaltzeko.






Antton Alberdik bigarren saria eskuratu zuen CAF-Elhuyar sariketan. Antton Alberdi elgoibartarrak eta Ostaizka Aizpurua zarauztarrak bigarren saria lortu zuten CAF-Elhuyar lehiaktean. Zuhaitz enborretan hasten diren onddoak, ardagaiak, protagonista diren artikulu bategatik saritu zituzten. Lanean azaldu zuten ardagai horiek basoetako ekosistemetan duten garrantzia; zura usteltzeak basoetako dibertsitatean eta konplexutasunean duten eragin positiboa, azken batean.



Natalia Mellado abeslariak ia hogei eguneko bira hasi zuen Errusian. Natalia Melladok dantza flamenkoaren berotasuna eraman zuen Errusiara. Martxoaren 31n hasi zuen bira, eta ia hogei egun egin zituen paraje hotz haietan. Hamar lagunek osatu zuten Melladoren konpainia: bost dantzarik eta bost musikarik. Hantzik bueltan, maiatzaren 28an, kontzertu bat eman zuen, Manolo Escobarrekin.

**talleres ZAILDU S/L**

- Makineria konpontzen espezialistak.
- Mandrinadorean planoekin egindako lanak.
- Prentsa Goiti eta mandrinadora AYCEren mantenimendua.

Gabon jai zoriontsuak elgoibartar guztioi!

Santa Klara, 40
Tel 943 74 07 60
Faxa: 943 74 39 95

**Lanbroa**




Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06











Uxue Alberdik eta Jon Eugik liburu bana argitaratu zuten apirilean. *Aulki-jokoa* kaleratu zuen Uxuek, bere bigarren liburua. Jon Eugiren estreinako liburuak *Piraten uhartea* dauka izena.




Euskararen aldeko Korrika iritsi zen Eloibarrera apirilaren 2an. Gauez etorri zen, baina elgoibartarrek harrera beroa egin zioten. Herria alderik alde zeharkatu ondoren, Mendarorantz abiatu ziren korrikalariak.

Paper edukiontzi bat suak hartu zuen Antonio Arrillaga kalean. Sortutako ke beltzak eguna gau bihurtu zuen une batez, eta etxe bateko aurrealdea zeharo beltzu zen. Hala ere, ez zuen kalte larririk eragin.





Kadete mailako IMH taldeak Euskadiko Eskubaloi Txapelketa irabazi zuen, eta Maite Bollar elgoibartarrari jokalari onenaren saria eman zioten.














Eñaut Izagirrek mendi eskiko junior mailako Euskadiko Txapelketa irabazi zuen. 125 lagunek hartu zuten parte Katalunian jokatu zen proban, eta elgoibartarra izan zen onena.



Juan Mari Mendizabal atxilotu eta kartzelatu zuten apirilaren 30ean. Ordura arte, baldintzapean aske zegoen elgoibartarra. 18/98 auzian zortzi urte eta erdiko kartzela zigorra ezarri zion Auzitegi Nazionalak.



Urgazi taldeko Ibon Gabilondok bosgarren postua eskuratu zuen Estatu Batuetako duatloian. 8,5 kilometro korrika, 48 bizikletan eta 6,5 antxitxikan egin zituen, 2:17:22 denboran.















Elgoibarko Efitermikek 2009ko enpresa onenaren saria jaso zuen, Eusko Jaurlaritzaren Lanbide Heziketako ekintzaile sarietan.



Inazio Bereziartua musika eskolak 25 urte egin zituen. 1984an ireki zuten, hamahiru irakaslerekin eta 300 ikaslerekin. Urteurrena ospatzeko hainbat ekitaldi egin zituzten, tartean, Debabarreneko zazpi musika eskolen topaketa egin zuten. 650 musika ikaslek alaitu zituzten herriko kaleak.




Meka Lanbide Eskola inauguratu zuten. Lanbide Heziketan erreferentzia izateko helburuarekin jaio da. 250 ikaslerekin hasi du aurtengo ikasturtea.




Maiatzaren 21ean Greba Orokorra izan zen, krisi egoeraren kontra, ELA, LAB, STEE, EHNE eta Hiru sindikatuek deituta. Elgoibarren goizez ez zuen eragin handirik eduki, baina eguerditik aurrera nabaritu zen batez ere herriko kaleetan.











Joseba Etxeberriak Kopako finala jokatu zuen Bartzelonaren kontra. Athleticeko kapitainak burumakur amaitu zuen norgehiagoka. Ametsak ihes egin zuen. Talde zuri-gorria aurretik jarri zen markagailuan, baina azkenean 1-4 galdu zuen.



Haundi futbol taldeak Bigarren B mailarako igoera fasea jokatu zuen Burgosen kontra, baina ez zuen mailaz igotzea lortu.



Soarteren idiak *Harri Beltza* mugitzen saiatu ziren Trinitate jaietan, eta, 50 urtean geldi egon ondoren, lortu egin zuten. Bi plaza eta lau metro egin zituzten idiek.









Gurean-Bai Pintxo Lehiaketa egin zuten, Elgoibarko Izarrak antolatuta. Hamar jatetxek eta tabernek hartu zuten parte egitasmoan. Herritarren saria Gabi jatetxeak jaso zuen, eta epaimahaiak Txarriduna jatetxeko pintxoari eman zion saria.



Ekainaren 6an inauguratu zuten Madalako parke berriztatua. Kiribil barraskiloak inauguratu zuen parkea eta Expresion Sonora talde mitiko elgoibartarra izan zen eszenatoki berria probatzen lehena. Madalako parketik Herriko Antzoki ingurura arteko berrikuntza lanak egiten ia zortzi hilabete behar izan zituzten beharginek. Dirutan, 971.419 eurokoa izan zen lanen kostua.

Alfontso Astaburuaga abadea hil zen, 75 urte zituela, azken hiru urteak minbiziak jota eman ondoren. 1970ean iritsi zen Elgoibarrera, eta azken 11 urteak Altzolako parroko lanetan jardun zuen.



BARRENek astekariari buruzko ikerketa lanaren emaitzak argitaratu zituen. Aztiker enpresak 725 elkarrizketa egin zituen Elgoibarren eta Mendaron, eta, emaitza horien arabera, Elgoibarren eta Mendaron ez dago BARREN ezagutzen ez duenik. Gainera, astekaria eskuartean hartzen dutenen %29k ez dute euskaraz ulertzen. Irakurleek 7,7ko nota eman zioten aldizkariari.

















Emakumeak eta kirola uztartzeko hainbat ekitaldi izan ziren ekainaren 6an. Horien artean, Elgoibarren hasi eta amaitu zen Emakumeen Birako etapa bat izan zen ekitaldi nagusia. Plaza Handian hasi eta 79 kilometroko ibilbidea egin ondoren. Nicole Cooke galestarra, egungo Munduko Txapeldun eta Pekingo Olinpiar Jokoetan txapelduna iritsi zen lehenengo postuan Mintxetako helmugara. Judith Arndt sailkatu zen bigarren postuan. Profesionalek eskaini zuten ikuskizuna itzela izan zen.



Trinitate auzoko eliza berriztatua inauguratu zuten Mendaron, ekainaren 6tik 8ra ospatu ziren Trinitate jaietan. 2008an hasi ziren Trinitate eliza berritzeko lanak, eta 300.000 euroko kostua izan zuten obrek. Foru Aldundiak %70 jarri zuen. Gainontzekoa Udalak, Gotzaitegiak eta herritarrek eginiko lanari esker lortu zuten, herri lanean.



Zuhaitz Gurrutxagak Bigarren A mailara igotzea lortu zuen Real Union taldearekin. Denboraldi biribila egin zuen Irungo taldeak, eta, besteak beste, Real Madril taldea Kopako txapelketatik kanporatu zuen. Irailetik aurrera, zilarrezko kategorian jokatu zuen Gurrutxagak.












Munduko hiru Trial Bike txapeldunek (senior mailako Benito Ros, kadete mailako Abel Mustieles, eta junior mailako Jon Areitio) parte hartu zuten merkataritza sustatzeko erakustaldian. Herritarrak bertako dendetan erosketak egitera bultzatzeko *Gure denda, gure poza* izeneko kanpainaren baitan hainbat ekintza sustatu ditu Udalak.



Herritarrek nolako merkadilloa nahi duten jakiteko ikerketa lana jarri zuen martxan Udalak, Osoko Bilkuran harturiko erabakia betez. Ikerketa horrek bi atal izango ditu: lehenengoan, egoeraren diagnosia egingo dute, eta bigarrenean, herriko merkataritza dinamizatu eta finkatzen lagunduko duten ekimenak proposatuko dituzte. Lan horren helburua udalerriko merkataritza eta zerbitzuen sektorea biziberritzea eta indartzea da. Diagnosia egiteko, uztailean zehar zenbait elkarrizketa egin zituzten: bizilagunei beraien erosketa-ohitura eta merkadilloko eskaintzarekin loturiko hainbat galdera egin zizkieten.

Obren lantalderako hamar langile kontratatzeko deialdia egin zuen Udalak, eta 242 lagunek eman zuten izena. Orain dela urtebete kosta egiten zen horrelako lanpostuak betetzea, eta arduradunak ere harrituta zeuden. Krisiaren eragina izango ote? Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoak Udalari eman zizkioten diru-laguntzei esker egin zituzten kontratazio horiek.







Izaskun eta Mari Jose Estibaritz ahizpek Zarauzko Emakumeen Estropadetako ikurriña egin zuten. Aurten jokatu zuten estreinako aldiz emakumezkoen txapelketa Zarautzen, eta irabazleak jaso zuen ikurriña Elgoibartik eraman zuten. Izaskunek josi egiten du, eta Mari Josek bordatu. Mutilen kategoriako bandera ere elgoibartarrek egin zuten lehen ediziotik, eta 2009.ekoa 32.a izan zen. Horrez gain, Zarauzko Udaleko bandera guztiak bi ahizpa horiek egin zituzten.



Hego Afrika, Armenia eta Elgoibarko dantzariek hartu zuten parte, Haritz Euskal Dantzari Taldeak antolatuta, Elgoibarko Nazioarteko Folklore Jaialdian. Armeniatik etorritako Nairi taldeak, Haritzek eta Afrikako Gauteng taldeak ikuskizun aparta eskaini zuten Olaizaga Kiroldegian.



Aspaldi laga zion Gure-Bidek Ondarroako itzulia antolatzeari, baina ohitura berreskuratu zuen elkarteak 50. urteurrenean. Elkarteko 20 bat bazkidek *Vuelta a Ondarroa* ezaguna egin zuten uztailaren 18an. Orain 50 urte ez bezala, txikiteorik gabe eta parrandarik gabe egin zuten itzulia, baina aurrekoek hasitako ohitura berreskuratu eta, batez ere, gogora ekartzeko ilusioarekin.


LEIGAR ELEKTRAGAILUAK

MANU LEIZABE LOYOLA





TB · BIDEOA · HI-FI · DVD

Salmenta eta zerbitzu teknikoa

Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54



Sanbartolomeetako gazteen egunean ibaira erori zen *Gorri* bigantxa izan zen sokamuturretako protagonistetako bat. Txankakua zubitik bederatzi metro inguruko jauzia egin eta Deba ibaian geratu zen larri. Zaurien larritasuna zelaeta, aberea hil egin behar izan zuten. Jabeek omenaldia egitea erabaki zuten eta afaria antolatu zuten *Gorri*-ren omenez, eta, nola ez, zezen okela jarri zuten jateko. Hori bai, ez Gorriren haragia, jakina.



Pilar Ikastetxeko ordezkariek bota zuten txapligu ofiziala, San Bartolome bezperan, abuztuaren 23an. Manu Conde gurasoen batzordeko presidenteak eta Nekane Aranburu ikastetxeko zuzendariak piztu zuten, zentruaren itxieraren atarian. 2010 urtean itxiko dute hainbeste urtean Elgoibarko umeak hezi dituen eskola. Ikastetxeak urte mordoa eman ditu martxan, eta lan horren errekonozimendua izan zen txapligua botatzea.

Elgoibarko sokadantzaren 75. urteurrena ospatu zuten San Bartolome Egunean. Zehatz-mehatz jakitea zaila bada ere, agirietako datuen arabera, Elgoibarko sokadantzak 75 urte bete zituen 2009an. Izenik gabeko ehunka dantzarik osatzen duten soka luze horrek eutsi dio gaur arte dantza egiteko ohiturari Elgoibarren, eta ohitura horrek dantza berezi bat jarraitzen du erakusten. Oinarrizko egitura berari eutsiz eta batetik bestera hamaika aldaera erakutsiz, mende askotan, domeketan eta jai egunetan dantzatu izan dute.





Mauxitxa txaranga 40. aldiz irten zen Txiki Egunean kaleak alaitzera. Taldeak 1970 urteko Txiki Egunean jo zuen estreinakoz Elgoibarren. Instrumentuak nola edo hala lortu eta Udal Musika Bandaren akademian entsaiatzen zuen taldeak. Alkandora zuria eta praka urdinak jantzita Soraluzeko Santa Ana Txiki Egunean jo zuten lehen aldiz. Ordudanik herri askotan aritu izan da Mauxitxa txaranga bere errepertorioarekin: kalejirak, balsak, jotak, ye-yeak, foxak pasodobleak... eta urtero kale egiten ez duten hitzordua: Txiki Eguna.

IPINTZA MARGOAK S.L.
Pladurra
Gortinak eta alfonbrak
Fatxada zaharberritzeak
Lur eta hormen era guztietako estaldura arinak
Gabon jai zoriontsuak!
SAR ZAITEZ ETA ESKATU AURREKONTUA!
Xixilion P-2 • 2.solairua, 11 zbk. • Foruen plaza, 4. • Biltegia: Errosario kalea,7
Tel.: 943 74 04 40 • 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa) • ipintzamargoak@hotmail.com

LODOSO LEIHOAK
Zure neurrira egindako lana
ARCO EUROPA GOLD STAR AWARD KALITATEA
PVCa
ALUMINIOA
TERMIKOA
ZURA
ALUMINIOA
POLIURETANOA
Sigmako industrialdea, Xixilion, 2. pabilioia, 3. zenbakia
Tel.: 943 74 34 90 Faxa: 943 74 73 12
www.lodoso.es
fjlodoso@euskalnet.net
AROZTEGI MISTOAN ADITUA

# GABONETAKO
# BERTSO JAIALDIA



## Andoni Egaña
## Uxue Alberdi
## Maialen Lujanbio
## Miren Amuriza
## Joxe Agirre

Gai-jartzailea: Irati Agirreazaldegi

**Abenduak 29 22:30 Herriko Antzokian**

ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

Elgoibarko Udala



Mausitxak Ordiziako Gazta Lehiaketa irabazi zuen hirugarren aldiz. Hamar urtean hiru aldiz irabazteagatik Urrezko Gazta Saria eman zioten, orain arte inork lortu ez duen saria; 2005ean eta 2007an ere saria elgoibartarrentzat izan zen eta. Gazta erdiagatik 12.000 euro ordaindu zituen Super Amara saltoki kateak. Mausitxako gaztarentzat oso urte ona izan da 2009a: Gipuzkoako Ardi Gazta Lehiaketa irabazi zuen Legazpin eta Elgoibarko eta Plentziako txapelketetan bigarren saria lortu zuen.





Txatarraz kargatuta zihoan kamioi batek istripua izan zuen, irailaren 8an, San Antolingo errotondan. Autopistatik irten eta Azkarateko bidera zihoala, kamioiaren kontrola galdu zuen gidariak, eta irauli egin zen. Gidariari ez zitzaion ezer larririk gertatu, baina kamioiaren karga lurrean botata gelditu zen

Irailaren 16an inauguratu zuten Andikano eta Maltzaga bitartean eraiki duten bidegorria. 2010. urtean Ermuaran-Sallobenteko bidegorriaren proiektua idazten hasiko direla ere aurreratu zuen Alfredo Etxeberria alkateak, eta ondoren gaineratu zuen "diruaren arabera" hasiko direla obrak. Bestalde, ibilbideko hiru zentral elektrikoetako batean dagoen 1905. urteko turbina hidrauliko bat, Espainiako zaharrenetakoa, berritzeko asmoa azaldu zuten agintariek.




IBARRENEA okindegia 1890tik

Gabon zoriontsuak!

ARTISAU-OGIA EGUR-LABEAN EGINDAKOA, KONTSERBAK ETA ARDOAK.

San Bartolome 28
Tel.: 680 724 060



Inoiz baino erabiltzaile gehiago izan zituzten Mintxetako igerilekuek 2009an. Guztira, 55.046 erabiltzaile izan ziren, aurreko urtean baino 20.704 gehiago, hain zuzen ere. Zabaldu zirenetik hona, urtez urte gora egin du erabiltzaile kopuruak, nabarmen 2009an. Txiringitoa, umeentzako jolastokia eta padel pista izan dira zerbitzuetan berrikuntza nagusiak. Bestalde, Elgoibarko Kirol Patronatuak 4.300 bazkide izan zituen, herritarren %43 hain zuzen ere. Patronatuak emandako datuak dira, eta, arduradunen ustez, oso kopuru altuak dira, batez ere, "inguruko herrietako portzentajeekin konparatuta".




Onik agertu zen Mendaron desagertutako emakumea. 76 urteko emakumea desagertu zen Mendaron, baina, zorionez, egoera onean aurkitu zuten hurrengo egunean. Ertzaintza, Gurutze Gorria, DYA eta hainbat herritarrek jardun zuten haren bila eta, azkenean, Kortaberri baserri inguruan aurkitu zuten, mendi-bide batean. Alabaren etxetik oso gertu zegoen. Emakumea Usurbilgoa da, eta Mendaro ondo ez ezagutzea izan daiteke galdu izanaren arrazoietako bat.



Olason egiten ari diren obren ondorioz, kanposantuko arkuan zartadak agertu ziren. Sarrerako eskaileretan eta hilobietan ere igarri ziren obraren kalteak, eta pitzadura horiek areagotu ez zitezen neurriak hartu zituen Sukia enpresak. Olasoko ardua XV. mendekoa da eta balio historiko handikoa da. Urrian ekin zioten konpontzeari.



Ane Perezek minbiziaren kontrako borroka galdu zuen. Azken urteotan minbiziaren kontra borrokan aritu eta gero, azkenean ezin izan zion gaixotasunari aurre egin eta 19 urterekin hil zen. Pirritx eta Porrotx pailazoekin oso harreman berezia eduki zuen Anek azken urteetan. Pailazoek berarengan inspiratu zuten minbizia ardatz hartuta sortu zuten *Eskerrik asko* ikuskizuna, izen bereko diskoa, eta baita Mari Mototsen papera ere. Orain gutxi *Ane Pirata* ipuina ere argitaratu dute.





Gotzon Garateri omenaldi beroa eskaini zion Elgoibarko herriak, hil zenetik urtebete pasatutakoan. Besteak beste, plaka bistaratu zuten Garateren jaiotetxean, San Bartolome kalean. Horrez gain, euskal idazle eta pentsalarien topagune bihurtu zen Elgoibar. Omenaldiak Gotzon zena eta bere lana hobeto ezagutzeko balio izan zuen.





Arnaldo Otegi berriz atxilotu eta espetxeratu zuten, Auzitegi Nazionalaren aginduz, ezker abertzalearen kontrako beste operazio batean. Ezker abertzaleko erakundeetan jardundako zazpi lagun atxilotu zituzten berarekin batera, tartean Rafa Diez, LABeko idazkari nagusi izandakoa. Atxiloketa salatzeko, hainbat protesta egin ziren, eta alderdi abertzale guztiek gogor kritikatu zuten operazioa.

Jasone Osorok *Ezekiel* izenburuko eleberria kaleratu zuen, Elkar argitaletxearekin. Gazte literaturako bere hirugarren eleberria da. *Ezekiel*-ek 14 urteko mutiko baten ilusioen, fantasien eta buruhausteen berri ematen du. Azaroan, gainera, Osorok beste liburu bat eman zuen argitara, *Bi marra arrosa*, bere lehen haurdunaldiko bizipenetan oinarrituta.







Elgoibarren amaitu zen Baserritar Gazteen Martxako lehen etapa urriaren 23an, Akuiluk antolatuta. Partehartzaileak euripean iritsi ziren, blai. Hala ere, pozik agertu ziren Elgoibarko herriak eginiko harrera beroarekin. Martxak kalera atera zituen baserritar gazteak. Izan ere, euren egoera larria izan arren, geroari baikortasunez begiratzen diotela adierazi zioten gizarteari.




Alain Ulazia mendaroarrak bigarren liburua kaleratu zuen, Gaiak Argitaraldiarekin: *Oppenheimer eta Manhattan proiektua*. Ameriketako Estatu Batuek bonba atomikoa garatzeko sortutako proiektuaren inguruko xehetasunak eman zituen bertan. Oppenheimer izan zen Manhattan proiektuaren buru zientifikoa. Haren biografia ardatz hartuta, progresu zientifikoaren alde ilunenen berri ematen du, kritika egiteko. Alfontso Martinez Lizarduikoa ingeniari eta filosofoaren ekarpena jaso zuen liburuan.



Ana Aizpiri izendatu zuten ETBko eguerdiko albistegien editore. Garrantzi handiko kargua hartu zuen kazetari elgoibartarrak. Izan ere, editoreak erabakitzen du zein gaik osatuko duten albistegia; horrez gain, irizpide informatiboak eta ildo editoriala ezartzen ditu. Albisteen ordena ere editorearen ardura da.





Juanito Gorostizari omenaldia egin zion azaroaren 3an Errosario kaleko jai-batzordeak. Berez, kaleko jaietan egin nahi izan zioten omenaldia, baina ospitalean ondoezik egon zenez, gerorako laga zuten. Omenaldia Jai-Alai tabernaren atarian egin zioten. Errosario kaleko hainbat auzokidek bihotzez eskertu zioten jaiak antolatzeagatik egindako lan mardula. Omenaldia xumea izan arren, hunkigarria izan zen.



Berrehun lagunetik gora elkartu ziren Plaza Handian *Egunkaria*-ri eta auzipetuei babesa emateko, azaroaren 28. Mendaron, berriz, 250 lagunetik gora elkartu ziren arrazoi berberagatik abenduaren 5ean. Epaiketaren atarian atera zituzten bi erretratuok. Izan ere, abenduaren 15ean hasi zen *Euskaldunon Egunkaria*-ren kontrako epaiketa.



Ardi batek bost bildots egin zituen Mintxeta baserrian. Zur eta lur gelditu ziren hango bizilagunak horren berri izatean. Izan ere, normalean bildots bakarra egiten dute ardiek, eta noizik behin bi. Ez da batere normala bost jaiotzea. Gainera, hasieran behintzat, bildots denek lortu zuten aurrera egitea, nahiz eta amak bost kumeetako bat maite ez.





2010eko udal aurrekontuak onartu zituen Udalak. Krisiaren eraginez, bigarren urtez jaitsi dituzte Elgoibarko aurrekontuak, eta 14,3 milioi eurorekin konpondu beharko du Udalak datorren urterako. PSE-EE eta EAJ-PNVk lortutako akordioaren bidez onartu zituzten aurrekontuak.



Euria bota eta bota izan zen egun batzutan, eta, ondorioz, urak handi joan ziren Deba ibaian. Elgoibar eta Maltzaga arteko bidegorri berria arriskuan zegoela ematen zuen. Ibaiak gainezka egin zuen, eta bidegorriko hainbat gune estali zituen. Sustoa baino ez zen izan. Urak, azkenean, kalte txikiak eragin zituen.



Ia-ia Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalean sartu zen Uxue Alberdi. Elgoibarko bertsolariak sekulako maila erakutsi zuen. 1.287,25 punturekin, zortzigarren egin zuen finalaurrekoetan, baina zazpik klasifikatu behar zuten Egañaren kontra finalean jarduteko.



Elgoibarko eta inguruetako musulmanek Bildotsaren Jaia edo Aid al-Adha ospatu zuten azaroaren 27an. Ospakizuna Sigmako frontoian egin zuten. Musulmanen erlijio egutegian data seinalatua da egun hori, kristauen Gabonen parekoa. Urtean behin izaten da, Mekako erromesaldiaren sasoian, Ramadana amaitu eta bi hil eta hamar egunera, hain zuzen ere.






Miguel Fernandez PSE-EEko zinegotziak kargua laga zuen urte amaieran. 35 urte Elgoibarren egin ondoren, sorterrira itzultzeko asmoa agertu zuen, Ciudad Realera. Lan-kontuen ondorioz hartu zuen joateko erabakia. Fernandezek 2007an hartu zuen zinegotzi kargua, eta, bere esanetan, pena handiz lagako du Elgoibar.



Abenduko zubian etorri ziren Gabonak Elgoibarrera, ofizialki behintzat. Udalak 37.000 euro gastatu zituen Gabonetako argiak jartzen, aurreko urtean baino 10.000 gutxiago. Aurreztearren, Udalak Gabonetako argi gutxiago jartzea erabaki zuen. Argiztatutako zonaldeei eutsi zien, baina argi-irudi gutxiago jarriko zituen.



Elgoibartar bi atxilotu eta kartzelatu zituzten abenduaren 2an, hilketa batekin zerikusia zutelakoan. Izan ere, udan, Kataluniako espeleologo talde batek gizon bat hilda topatu zuen leize batean, Madariagan (Azkoitia). Buruan kolpe bortitz baten ondorioz hil zutela argitu zuen autopsiak. Ertzaintzaren arabera, Pedro Muguruza kaleko tailer batean gertatu zen hilketa, eta Elgoibarko bizilagun bik zerikusia izan zuten.


Tel.: 943 741 011
LARRAÑAGA
AUTOESKOLA
- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
- SENTSIBILIZAZIO ETA BIDE BERREZIKETAKO IKASTAROAK
Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!
Zatoz informazio eske!

Maria Urizar
- Ileapaindegia
- Solariuma
Errosario kalea, 9 - 1 ezk.
Tel.: 943 744 489
Elgoibar


ZURE ALDE
ZA
ABOKATUAK
Gabon zoriontsuak!
Komunitateen, ugazabeen aholkularitza.
Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.
Iñaki Gil Azpilicueta
Jausoro Plaza, 3 behea
Tel.: 943 531 351
Ignacio Vazquez Gonzalez
e-mail: zurealde@telefonica.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)


EAJ
PNV
Elgoibarko EAJ-PNVk
jai zoriontsuak
opa dizkizue
elgoibartar guztioi.


Gabon zoriontsua
eta
urte berri on!
TOLETXE
Taberna
PEDRO MUGURUZA 8, BEHEA
ELGOIBAR • TEL.: 943 741 012


PNEUMAX
ENPRESA
KALITATEA ZIURTATZEKO
PRODUKTUAK
EGITURA
Gabon zoriontsuak berritar guztioi!
PNEUMAX S.A.

**DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA**

*Laster garai hobeak*
*badatoz, agian,*
*jai hauek piztu duten*
*zorion-argian,*
*herrientzat bakea*
*batasun harian,*
*hori opa dizugu*
*jaion atarian.*

-Luis Baraizarra-



**Zorionak eta Urte Berri on!**

Nafarroa Enparantza, 2 – 943 742 731
20870 ELGOIBAR • elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

IES ELGOIBAR-ARREITURRE BHI
IEFPS MEKA GLHBI

2009
2010

GABON JAI
ZORIONTSUAK
ETA 2010
URTE BERRI ON



Etorri eta ezagutu
IKASTOLA
EGUBERRION
elgoibar ikastola
☎ 943 744441
elgoibar@ikastola.net
www.elgoibarikastola.net




EA
EUSKO ALKARTASUNA
Urte Zaharra galtzear
Berria agurtu behar,
batzutan irriz etorri da ta,
zenbaitetan negar,
ekiogun ba denok bat,
batuta milaka indar,
denok batera aurrera egin
dezagun Elgoibar
Zorionak eta Urte berri on!


TEXTIL HOGAR - LAGUNAK
Urte berri on!
ATSEDENA OPARITU,
ADIMENEZ ETA KOFIANTZAZ
San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com
TEMPUR
laxy


ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA
Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria !
ORDUTEGIA
10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era
LEKUALDAKETA
San Frantzisko, 52 behea
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR

# EUSKAL GIROAN OSPATU ZUTEN

## MENDAROKO URTEROKO KONTZEZIO AZOKA

**Eguraldi onak lagunduta, jendetza handia batu zen Kontzezio Azoka egunean, Mendaron. Urtero legez, baserriko produktuak dastatzeko eta erosteko aukera izan zen, eta baita herri kirolen erakustaldiaz gozatzekoa ere. Unai Andonegi eta Jon Ostolaza trikitilariek jardun zuten goiza girotzen, eta Trikiti Eskolakoek dantza erakustaldia ere egin zuten. Era berean, eta bigarren urtez jarraian, Mendaroko Udalak baserritar jantzi dotoreenarentzako sariak ere banatu zituen. Jaione Zabala eta Aitzol Urain mendaroarrek jaso zuten saria: azokako produktuez osatutako otarra. Basorik txukunenari eskainitako saria –150 euro–, berriz, Lizarrola baserrikoentzat izan zen.**



*Haurrak, festa giroan.*



*Donato Larretxea, aizkoran.*



*Dantzariak, dantza ikuskizuna hasi aurretik.*



*Azokan mugimendu handia izan zen goiz parte osoan.*



*Mendaroko gazteak, Gazte Asanbladak jarritako txosnan, talo eginean.*



*Trikiti Eskolako gaztetxoak udaletxeko plazan dantzan.*

# 250 lagun baino gehiago batu ziren Kontzetzio Azoka egunean Mendaron, 'Egunkaria'-ri babesa emateko

'Egunkaria'-ren aldeko herri plataformak biharko manifestazioan parte hartzera deitu du



Kontzezio Azoka egunean 250 lagun baino gehiago elkartu ziren Mendaron *Euskaldunon Egunkaria*-ren kontrako auzia salatzeko eta auzipetuei elkartasuna eta babesa emateko. Kamisetak, bonoak eta errifak ere saldu zituzten, epaiketako gastuei aurre egiteko, eta, guztira, 1.450 eurotik gora batu zituzten. Martitzenean hasi zuten Espainiako Auzitegi Nazionalean *Egunkaria*-ko auzi nagusian auzipetutako bost lagunen kontrako epaiketa, eta biharko manifestazio nazionala dago deituta, Bilbon. Mendaroko herri plataformak azoka egunean herritarrek emandako laguntza eskertu du, eta biharko manifestazioan parte hartzera deitu ditu.

## Iker Maiora atleta mendaroarrak zazpigarren egin zuen domekan Eibarko Bolunburu Krosean

Donostiako Maratoian orain arteko bere marka guztiak ondu ostean, neguko denboraldiari ekin dio Iker Maiora atleta mendaroarrak. Domekan, Bolunburu Krosa jokatu zuen Eibarren, Arrateko zelaian, eta seniorretan zazpigarren egin zuen, 29:16ko denbora eginda. Asier Cuevas eibartarrak irabazi zuen, bigarren urtez jarraian.




*Artxiboko argazkia*

## Haurreskola inauguratu dute Mendaron

Irailean zabaldu zuten Mendaroko haurreskola, baina joan zen astean inauguratu zuten, abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean. "Herritarren egunerokoan laguntzeko proiektua" izan zela nabarmendu zuen Irune Berasaluze alkateak, eta haurreskola inauguratuta, "aspaldiko ilusio bat" bete dela esan zuen. Mendaroko Udaleko hainbat zinegotziz gain, Foru Aldundiko, eta Hezkuntza Saileko ordezkariek parte hartu zuten, besteak beste, ekitaldian.

# Maialen Lujanbio txapeldunak Elgoibarko bertso jaialdian kantatuko du

### Lau aldiz txapela jantzi duen Andoni Egaña ere izango da

Maialen Lujanbio, Bertsolari Txapelketa Nagusiko irabazleak Herriko Antzokian kantatuko du abenduaren 29an, Elgoibarko Izarrak antolatutako Gabonetako Bertso Jaialdian. Punta-puntako bertsolariak izango dira saioan: 2009ko txapeldunarekin batera, lau aldiz txapela jantzi duen Andoni Egaña izango da. Uxue Alberdik, Miren Amurizak eta Joxe Agirrek ere hartuko dute parte. Gaijartzaile lanak Irati Agirreazaldegi elgoibartarrak egingo ditu.

Sarreren prezioa 9 eurokoa da (Elgoibarko Izarrako bazkideentzat 6 euro). Sarrerak aurrez erosteko Elgoibarko Izarrak Ubitarten daukan lokalera joan daiteke, abenduaren 23a baino lehen.



**Olentzeroren kalejira 10:45ean hasiko da**

Atxutxiamaikak antolatuta, Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira izango da abenduaren 24an. Madalatik irtengo dira 10:45ean, eta herriko kaleak zeharkatuko dituzte, Plaza Handira iritsi arte. Bertan, *Behin batean Gabonak* lehiaketako sariak banatuko dituzte.

**Erregeen kabalgata eta jaiotza biziduna hilaren 5ean**

Parrokiako Katekesiak antolatuta, jaiotza biziduna izango da urtarrilaren 5ean, Plaza Handian. Ondoren, 18:00ak aldera, Idotorbe-San Pedro bailaratik etorriko dira Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak. Herriko kaleak zeharkatu ondoren, udaletxeko arkupeetan jasoko dituzte umeen eskutitzak, opariak ekartzeko.

# Musika Bandak 125. urteurrena ospatzeko egitarau zabala prestatu du

Udal Musika Bandak 125 urte beteko ditu 2010ean, eta hori ospatzeko, urte osorako egitaraua prestatu du. Besteak beste, taldeari buruzko erakusketa inauguratuko dute gaur, 19:00etan, Kultur Etxean. Bestalde, egutegi txikiak eta handiak kaleratuko dituzte, kontzertu bereziak eskainiko dituzte eta Pello Arrieta historialariak idatzitako liburu bat ere argitaratuko dute. Horrez gain, bandaren bandera berria egiten dihardute. 103 urte dauzka banderak, eta berritzeko beharra duela azladu zuten bandako kideek. 1885eko uztailaren 1ean sortu zen Udal Musika Banda. Beraz, 2010eko uztaileko lehen asteburuan egingo dute urteurreneko ekitaldi ofiziala, eta orduan estreinatuko dute bandera berria. Bestalde, *www.elgoibarkomusikabanda.com* webgunea jarri dute martxan, eta bertan aurkitu daiteke informazio guztia.





I. URTEURRENA

JUANA BARRENETXEA ELORZA

2008ko abenduaren 11n hil zen.

*"Gu zureak, zu gurea,*
*ama eta amama betiko"*



# Urteko gaztarik onena aukeratuko dute Gabon Zahar Ferian

## Zazpi gaztagilek hartuko dute parte lehiaketan

Gabon Zahar Feria egunean urteko gaztarik onena aukeratzeko txapelketa egingo dute. Elgoibarko Udalak eta Kalamua elkarteak bigarrenez antolatu dute Urteko Gazta Txapelduna lehiaketa, eta bertan Idiazabal jatorriko ardi-gazta lehiaketetako irabazleek hartuko dute parte. Zazpi gaztagile izango dira guztira, eta horien artean aukeratuko dute txapeldunen txapelduna: Jesus Mari Ansola (Mausitxa, Elgoibar), Jesus Aranburu (Idiazabal), Puy eta Gaspar Arrieta (Araia), Aizpea gaztandegia (Olaberria), Mari Mar Castro (Abartzuza), Ricardo Murias (Muskiz) eta iazko lehiaketa irabazi zuen Ricardo Remiro Eulateko artzaina. 13:00etan egingo dute sari banaketa.

Ferian, bestalde, barazki, fruitu, gozo eta beste hainbat produktu ikusteko eta erosteko aukera izango da. Elgoibar Ikastolak txosna jarriko du Nafarroa Plazan, eta, 12:30etik aurrera, Eusko Label markako oilasko-pintxoak banatuko dituzte. Elgoibarko Kale Kantariak 11:45ean hasiko dira kaleak kantuz alaitzen, eta trikitilariak ere kalean zehar ibiliko dira.



*Ricardo Remirok lortu zuen iaz txapela.*

## 2010eko egutegia aurkeztu du Udalak



2010eko egutegia aurkeztu zuten abenduaren 14an, eta aldi berean, aukeratutako argazkien egileei sariak banatu zizkieten. Aurten, 50 lagunek hartu dute parte, eta, guztira, 137 erretratu aurkeztu dituzte lehiaketara. Andoni Rementeria, Angel Vicario, Aitor Rementeria, Carlos Esteban, Eulogio Mancebo, Alberto Fernández, Manu Sanchez Iñaki Beristain, Asier Izagirre eta Aitor Zabala saritu dituzte, eta argazki bakoitzagatik 60 euro jaso dituzte. Herriko argazkiez gain, elgoibartarrok sarritan egiten ditugun akatsak zuzentzeko aukera eskaini dute aurten. Gorriz gaizki esandako esaldiak irakurri daitezke, berde argiz ageri da esaldi hori Elgoibarren nola esaten den, eta berde ilunez, berriz, esaldi hori euskara batuan nola den. Egutegi txikiak etxeetako postontzietan banatuko dituzte, eta handiak elkarteetan, eskoletan eta erakundeetan. Bestalde, Kultur Etxean eta Arreta bulegoan eskuratu ahal izango dira.

### Gospel kontzertua izango da gaur Herriko Antzokian

Udaleko Kultura Sailak antolatuta, Gospel kontzertua izango da gaur, hilak 18, Herriko Antzokian. Estatu Batuetako Black Heritage Choir taldeak eskainiko du kontzertua, 22:15ean hasita. Mississipiko sei lagunek osatzen dute. Ameriketatik kanpora ere ibilitakoak dira kontzertuak ematen: besteak beste, 2003an eta 2004an Europan zehar egin zuten bira. Kontzertura joateko *www.kutxa.net* webgunean edo txarteldegian erosi daitezke sarrerak.

### Jaiotza mekanikoa hilaren 21ean jarriko dute martxan

Elgojaiotza taldeak abenduaren 21ean jarriko du martxan jaiotza mekanikoa. 20:00etan izango da inaugurazioa, eta ordutik aurrera bisitatzeko aukera izango da. Jaiotza mekanikoak 30 urte egingo ditu aurten.

### Ihintza eta Ainhitze Beristain jaiotza lehiaketan irabazle

Ihintza eta Ainhitze Beristain ahizpek irabazi dute Parrokiako Katekesiak antolatutako jaiotzen lehiaketa. 30 taldek hartu zuten parte, eta hainbat materialez eginiko lanak aurkeztu zituzten lehiaketara. Irabazlea egurrez eta zerrautsez eginiko jaiotza izan zen. Lan guztiak Errosario kaleko 7. zenbakian dagoen lokalean jarri dituzte ikusgai.



# Gabonetako areto-futbol txapelketa antolatu du CD Debabarrenak

## Abenduaren 28tik 30era bitartean jokatuko da

Abenduaren 28tik eta 30era bitartean jokatuko da Gabonetako areto-futbol txapelketa, CD Debabarrenak, Kirol Patronatuaren laguntzaz antolatuta. Areto-futbolaren harrobia sustatzea da txapelketaren helburu nagusia, eta alebin, infantil, kadete eta jubenil mailakoentzako txapelketa izango da. Partidak 15:00etatik 21:00ak bitartean jokatuko dira, Olaizaga kiroldegian. Izena emateko azken eguna gaur izango da, abenduak 18. Interesatuek ikastetxeetan edo Olaizaga kiroldegian eman dezakete izena.



## Gaztetxoentzako izotz-hockey txapelketa izango da Gabonetan

Gabonetako izotz-hockey txapelketa izango da benjaminentzako eta alebinentzako, Elgoibarko Eskola Kirola elkarteak antolatuta. Abenduaren 28an eta 29an jokatuko dira partidak, 10:00etatik 13:00etara. Bost laguneko taldeak osatu behar dira.

Izotz pista, bestalde, gaur arratsaldean zabalduko dute, eta Gabonetako oporraldian erabiltzeko aukera izango da.

### Igeriketa ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago

Olaizaga Kiroldegiak jakinarazi du abenduaren 29an amaituko dela igeriketa ikastaroetan izena emateko epea. Jaioberrientzako, haurrentzako eta nagusientzako ikastaroak eskainiko dituzte. Ikastaroak urtarrilaren 11n hasi eta otsailaren 17an amaituko dira. Informazio gehiago nahi izanez gero, kiroldegira jo daiteke.

### Mendiko argazkien erakusketa hilaren 23ra arte

Morkaiko mendizale elkarteak antolatuta, martxan da mendiko argazkien erakusketa. Argazki lehiaketan parte hartu duten erretratuak jarri dituzte ikusgai aste honetan, eta abenduaren 23ra arte egongo da erakusketa bisitatzeko aukera. Ongarri argazki elkarteko kideek aukeratuko dute erretraturik onena, eta irabazleak 150 euroko saria jasoko du. Horrez gain, ikusleek argazki gustukoena aukeratuko dute, eta saridunak 125 euro jasoko ditu. Erakusketa astelehenetik barixakura egongo da irekita, 19:00etatik 21:00etara.



# Urteko kirolari onenak aukeratuko dituzte abenduaren 22an

## Mugertza Krosari buruzko mahaingurua ere izango da



*Goiko argazkian, iazko sarituak.*

Herriko kirolari onenei errekonozimendua erakusteko asmoz, abenduaren 22an banatuko dituzte Kirol Federatuaren Sariak. 19 klubek urtean zehar egiten duten lana aintzat hartzeko asmoz antolatzen dute ekitaldia. Klub bakoitzak aukeratzen du bere arloan saria jasotzea merezi duen pertsona (kirolaria, zuzendaria, babeslea, laguntzailea, jokalari ohia, entrenatzailea....). Klubekoa edo kirol modalitate horretan beste klub batean parte hartzen duen edozein elgoibartar aukeratu dezakete.

Kirol Federatuaren Sariak 2003. urtean banatu ziren estreinakoz, eta urte batzuetako etenaldiaren ondoren, 2007an ekin zioten berriz. Aurtengoa laugarren edizioa izango da. Sari banaketa 19:00etan egingo dute, Inazio Bereziartua musika eskolako auditorioan. Aurretik, *Juan Mugertza krosaren iragana eta oraina* izeneko mahaingurua izango da. Martin Fiz eta Iratxe Aranburu korrikalariak eta kroseko antolatzaileak eta antolatzaile ohiak izango dira hizlariak.

## Padel txapelketa jokatuko dute bihar Mintxetan



Padel Express txapelketa jokatuko dute bihar, abenduak 19, Mintxetan, 40-15 Tenis eta Padel elkarteak antolatuta. 10:00etan hasiko dira partidak, eta bi fase bereiztuko dituzte: taldekako fasea eta kanporaketak. Bikote bakoitzak 15 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeko. Interesatuek ondorengo telefonoetara deitu dezakete informazio gehiago eskuratzeko: 696 577 872 edo bestela 637 990 159.

# EMAITZAK

**FUTBOLA**

Haundi 1 – Leioa 0 (3. maila)
Anaitasuna 3 – Elgoibar 1 (Pref.)
Elgoibar 3 – Ostadar 1 (Jub.)
Elgoibar 2 – Aretxabaleta 0 (Kad A.)
Ilintxa 4 – Elgoibar 0 (Kad. B)
Elgoibar 0 – Amaikak Bat 4 (Inf.)
Arrasate 3 – Elgoibar 2 (Txiki)
Elgoibar 0 – Bergara 1 (Nesk.)
Elgoibar 2 – Zumaiako 1 (Aleb.)

**ESKUBALOIA**

Urdaibai 24 – Tecnifuelle Elg. 24 (Sen. nesk.)
Grupo Eibar Elg. 24 – Basauri 17 (Jub. nesk.)
IMH Elg. 28 – Basauri 25 (Kad. nesk.)
Alkorta Elg. 35 – Ormaiztegi 34 (Sen. mut.)
Lauko Elg. 20 – Ereintza 20 (Kad. nesk.)
Pneumax Elg. 29 –Bergara 30 (Kad. mut.)
Arrate 7 – Ikus Elg. 20 (Inf. nesk.)
EH Alaia 10 – Aterpe Elg. 27 (Inf. nesk.)
EH Alaia 23 – Astigarraga Elg. 5 (Inf. nesk.)
Algorri Pulpo 9 – Bankoa Elg. 33 (Inf. mut.)
Txarriduna Elg. 7 – Pulpo 35 (Inf. mut.)

**ESKU PILOTA**

Gipuzkoako txapelketa
Lagunak 22 – Añorga 20 (2. mailako Kad.)

**ARETO FUTBOLA**

Concepto Createch Elg. 6 – Jarrilleros 6

**SASKIBALOIA**

Anbolo Elg. 11 – Ipar proyect 43

# AGENDA

**FUTBOLA** (Mintxetan)

Zapatua, 19
11:00 Elgoibar – Ostadar (Inf. txiki)
12:30 Elgoibar – Urola (Kad. B)
Domeka, 20
10:00 Futbol eskola – Arrasate

**ESKUBALOIA** (Kiroldegian)

Zapatua, 19
9:30 Astigarraga Elg. – Zarautz (Inf. nesk.)
10:45 Aterpe Elg. – Pulpo (Inf. nesk.)
12:00 Ikus Elg. – Zarautz (Inf. nesk.)
17:00 Beristain Elg. – Aloña Mendi (Jub. mut.)
Domeka, 20
9:30 Lauko Elg. – Zarautz (Kad. nesk.)
11:00 Bankoa Elg. – Arrate (Jub. mut.)



• Zorionak, **Lidia eta Naroa**, abenduan zuen urtebetetzea izan delako. Etxekoen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **bikote!** Julen, mutil haundi, lau urte eta Nereak, dagoeneko urtebete. Muxu potolo bana danon partez.



• Zorionak, **aittitta eta amama**, abenduan urteak egin dituzuelako. Etxekoen, eta bereziki, Garaziren eta Iruneren partez.



• Zorionak, **Sarai, Danel eta David,** urteak egin dituzuelako. Muxu handi bat familiakoen partez.

**Urtarrilaren 8ko alean alean norbait zoriondu nahi baduzu, urtarrilaren 5erako ekarri beharko duzue BARRENera, 12:00etarako.** Edo bestela, *barren@elgoibarkoizarra.com* e-postara bidali goian esandako egunerako. Erretratu bakarreko agurra: 2 euro. Argazki bikoitza: 3 euro. Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.





• Zorionak, **Klara,** 2 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **Iker Jose,** abenduaren 10ean 5 urte egin zenituelako. Gurasoen partez.



• Zorionak, **June,** astearteantean urtebete egin zenuelako. Etxekoen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Julen,** abenduaren 15ean 11 urte egin zenituelako. Etxekoen partez, jarraitu horrela!



• Zorionak, **Eider**, hilaren 22an zure eguna izango delako. Familiakoen eta ahizpa Goizederren partez.



• Zorionak, **Igor**, 2 urte handi egin dituzulako. Bi muxu potolo, familiakoen partez.



• Zorionak, **Igor,** domekan 4 urte egingo dituzulako. Patxo handi bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **Urko,** asteartean 4 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Iratiren partez.



• Zorionak, **Oier**, gaur 5 urte egin dituzulako. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **txapeldun,** 2 urte egin dituzulako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Unairen partez.



• Zorionak, **printzesa,** abenduaren 29an 4 urte egingo dituzulako. Etxekoen eta bereziki, ahizpa Garaziren partez.



• Zorionak, **Ane**, hilaren 11n 3 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoen eta lagunen partez.



• Zorionak, **Maria Jesus,** abenduaren 25ean 80 urte egingo dituzulako. Lagunen partez, oso ondo pasa!



• Zorionak, **Maria,** hilaren 16an 7 urte egin zenituelako. Familiakoen, eta bereziki, Aneren partez.



• Zorionak, **Gorka,** abenduaren 6an 7 urte egin zenituelako. Etxekoen partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Maider,** zure 3. urtebetetzean. Osaba-izeben, aitona-amonen, gurasoen eta, bereziki, Isabelen partez.



• Zorionak, **Malen**, bihar 3 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



• Zorionak, **Roke**, zure 8. urtebetetzean. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Nora**, atzo zure lehenengo urtebetetzea izan zelako. Lehengusu Markel, Londresko izeba Miren eta familiakoak.



• Zorionak, **printzesa,** 9 urte egin dituzulako. Gurasoen partez.



• Zorionak, **Danel**, abenduaren 22an 7 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta Uxueren partez.



• Zorionak, **Ihart!** Zure 12. urtebetetzean eta ospakizun guztietan oso ondo pasako zenuelakoan, besarkada bat denon partez.



• Zorionak, **Markel,** bihar 6 urte egingo dituzulako. Amama eta familiako guztien partez.



• Zorionak, **Beñat**, abenduaren 12an 4 urte egin zenituelako. Andres eta Rosa, Zuhaitz, Ariane eta Ikerren partez. Muxu!



• Zorionak, **Itxaso**, 2 urte egingo dituzulako. Munduko printzesa politenari, muxu handi bat amama Lolaren partez.



• Zorionak, **Iker,** abenduaren 20an 7 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Goraneren partez.



• Zorionak, **Elene**, abenduaren 9an 2 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



• Zorionak, **Iñigo,** abenduaren 12an 4 urte egin zenituelako. Muxu handi bat etxekoen partez.



• Zorionak, **pareja**! Oso ondo pasatu genuen zuen ezkontza egunean. Muxu bat familiakoen partez.

## OKINDEGIA

20 domeka IBARRENEA
25 barixakua EZ DAGO
27 domeka BOLINTXO
1 barixakua EZ DAGO
3 domeka EIZAGIRRE
6 eguaztena FOTERO

## FARMAZIAK

| | 24 ORDUZ |
|---|---|
| 18 | Ibañez |
| 19 | Garitaonandia |
| 20 | Garitaonandia |
| 21 | Etxeberria *(S.A.)* |
| 22 | Fernandez |
| 23 | Yudego |
| 24 | Zabaleta |
| 25 | Zabaleta |
| 26 | Ibañez |
| | Goizez, Etxeberria *(S.A.)* |
| 27 | Ibañez |
| 28 | Garitaonandia |
| 29 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 30 | Fernandez |
| 31 | Ibañez |
| 1 | Ibañez |
| 2 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 3 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 4 | Ibañez |
| 5 | Garitaonandia |
| 6 | Ibañez |
| 7 | Fernandez |

Ibañez
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez
Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

## 18 barixakua

### Musika
**18:30 Kale Kantarien entsegua**
Elgoibarko Kale Kantariek entsegua egingo dute, Gabon Zahar Feriako saioa prestatzeko. Herritar guztiak daude gonbidatuta. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### Erakusketa
**19:00 Musika Bandaren 125. urteurrena**
Musika Bandak 125 urte egingo ditu 2010ean. Urte horietako historia biltzen duen erakusketa izango da Kultur Etxean, urtarrilaren 6ra arte.

### Musika
**22:15 Gospel kontzertua**
Estatu Batuetako Black Heritage Choir taldeak gospel saioa eskainiko du. Herriko Antzokian.

## 19 zapatua

### Kirola
**10:00 Padel txapelketa**
40-15 elkarteak antolatuta, Mintxetan.

## 20 domeka

### Irteera
**10:00 Mendi irteera**
Ikastolako gurasoek antolatuta, Kakutara egingo dute irteera.

### Jaia
**12:00 Santo Tomas jaia**
Zubibai elkarteak antolatuta, Santo Tomas eguna ospatuko dute Altzolan.

### Musika
**12:30 Musika Bandaren kontzertua**
Udal Musika Bandak Gabonetako kontzertua eskainiko du. Herriko Antzokian.

## 21 astelehena

### Jaialdia
**15:30 Pilar ikastetxeko ikasleen jaialdia**
Pilar Ikastetxean.

### Ikuskizuna
**17:00 Txan magoa**
Atxutxiamaikak antolatuta, Txan magoaren ikuskizuna izango da. Herriko Antzokian.

### Inaugurazioa
**20:00 Jaiotza mekanikoa**
Elgojaiotza taldeak antolatuta, jaiotza mekanikoa inauguratuko dute. Urtarrilaren 18ra arte egongo da ikusgai.

## 22 martitzena

### Kirola
**19:00 Kirol sarien banaketa**
Elgoibarko Kirol Federatuaren Urteko Sariak banatuko dituzte. Musika eskolako auditorioan.

### Musika
**20:00 Musika Eskolako Gabonetako kontzertua**
Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute San Bartolome parrokian.

## 24 eguena

### Kalejira
**10:45 Olentzeroren kalejira**
Atxutxiamaikak antolatuta, Madalan hasiko da Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira. Plaza Handian *Behin batean Gabonak* lehiaketako sariak banatuko dituzte.

### Musika
**18:00 Musika Bandaren kalejira**
Udal Musika Bandak Gabonetako kalejira egingo du.

### Musika
**18:00 Parrokiako abesbatzaren kalejira**
Parrokiako abesbatzak gabon kantak eskainiko ditu.

## 26 zapatua

### Gabon Zahar Feria
**9:00 Azoka**
Baserrietako produktuak dastatu eta erosteko aukera izango da.
**11:45 Kale Kantariak**
Elgoibarko Kale Kantariek kalejira egingo dute. Hasiera, Nafarroa Plazan.




**«2012»**
19, zapatua: 19:00/22:15
20, domeka: 19:00
21, astelehena: 21:30

**«Lluvia de albondigas»**
20, domeka: 16:30

**«Un cuento de navidad»**
27, domeka: 16:30

**«Siempre a tu lado»**
26, zapatua: 19:00/22:15
27, zapatua: 19:00
28, astelehena: 21:30

12:30 **Eusko Label pintxoak**
Ikastolako txosnan Eusko Label oilaskoen pintxoak banatuko dituzte.

13:00 **Urteko Gazta Onena**
Urteko Gazta Onenaren saria banatuko dute. Udaletxean.

## 28 astelehena

### Kirola
10:00 **Hockey txapelketa**
Elgoibarko Eskola Kirol ekimenak antolatutako txapelketa. Hilaren 29an ere jokatuko dira partidak. Leku Ederreko izotz pistan.

### Kirola
15:00 **Areto futbol txapelketa**
Debabarrena elkarteak antolatuta, hilaren 30era arte jokatuko dira partidak. Kiroldegian.

## 29 martitzena

### Bertsoak
22:30 **Gabonetako bertso jaialdia**
Elgoibarko Izarrak antolatuta, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Uxue Alberdi, Miren Amuriza eta Joxe Agirre izango dira Elgoibarren. Irati Agirreazaldegik egingo ditu gai-jartzaile lanak. Herriko Antzokian.

## 31 eguena

### Kirola
17:00 **San Silvestre lasterketa**
Urgazik antolatuta, San Silvestre lasterketa izango da. Hasiera, Plaza Handian.

## 4 astelehena

### Musika
17:30 **Musika eskolako ikasleen kontzertua**
Inazio Bereziartua eskolako ikasleek kontzertua eskainiko dute, San Lazaro egoitzan.

## 5 martitzena

### Jaiotza
17:30 **Jaiotza biziduna**
Plaza Handian.

### Kabalgata
18:00 **Erregeen kabalgata**
Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak etorriko dira opariak banatzera. Plaza Handian.

## 6 eguaztena

### Musika
10:00 **Musika Bandaren kalejira**
Musika Bandak kalejira egingo du, eta San Lazaro egoitzako kideak bisitatuko dituzte.

### Musika
12:30 **Musika Bandaren kontzertua**
Errege Eguneko kontzertu berezia. Herriko Antzokian.

### Meza
11:30 **Kristau ikasbidekoen meza**
Errege magoek parte hartuko dute Parrokiako Meza Nagusian.


LENTZERIA
BARRUKO ARROPA
NEURRIRA EGINDAKO JANTZIAK
Gabon jai zoriontsuak!
San Bartolome, 19 • Tel: 943 74 35 95

PREZISIO MUNDU BAT
MYL S.A.
Zorionak eta Urte Berri On!
Erramone poligonoa, 1-3-5 - 20850 MENDARO
Tel. 943 75 70 03 - Faxa: 943 757 130
E-posta:myl@myl.es - http:www.myl.es

Elgoibarko Izarra Elkarteko HAURRAK ETA GAZTEAK Sailean
ATXUTXIAMAIKA PROIEKTURAKO KOORDINATZAILEA

ZER ESKATZEN DA?
♦ Aisialdian prestakuntza espezifikoa eta eskarmentua (Zuzendari titulua beharrezkoa da).
♦ Aisialdiko proiektuak koordinatzen eta taldeak dinamizatzen esperientzia.
♦ Elgoibarkoa izatea.
♦ Gidabaimena eta autoa izatea.

ZER ESKAINTZEN DA?
♦ Urtebeteko kontratua (otsailean hasita). Luzatzeko aukerarekin.
♦ Astean 20 orduko lanaldia.

Interesatuak curriculumak bidali, abenduak 28a baino lehen, e-posta honetara: *atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.com* Tel.: 943 741 626 (Ainara)



EIZAGUIRRE
OKINDEGIA
LANTEGI PROPIOA
Gabon gauerako eta
Eguberrirako
ogi bereziak enkarguz
San Frantzisko kalea, 22 behea
Tel. 943 74 04 88




Gabon zoriontsuak!
Luis F. Beristain
FORMA
banatzaile ofiziala
ETXEKIT
12 urteko bermea
Arrillaga z/g - Elgoibar
Tel. 943 744 347




Jai zoriontsuak denoi
GABILONDO
317
api
INMOBILIARIA AGENTZIA
Zuzenbidean lizentziatua
API
Edurne Gabilondo Loyola
Jose Mª Azpeleta Iturricastillo
ETXEBIZITZA ERAIKI BERRIAK
Logela batekoak edo bikoak - San Bartolome kalea, 1
144.242 eurotik hasita
SAN FRANTZISKO 51, BEHEA - ELGOIBAR- Tel: 943 74 44 67



# Eibarko El Corte Inglés

## Beste estilo bat astialdiaz gozatzeko



Kiroletan, markarik onenak, Nike, Adidas edo Boomerang, esaterako, espezializatuenekin batera: The North Face, Orbea, Trangoworld..., behar duzun ekipamendu guztiarekin. Eta, gainera, musikarako espazio berezia: beste bat musikarako, beste bat zinemarako, liburu-sail handia eta azken nobedadeak informatikan, telefonian, argazkilaritzan, irudi eta soinuan... pentsa ditzakezun jostailu eta bideo-joko guztiekin.

El Corte Inglés

EGO GAIN, 7. EIBAR

ETENGABEKO ORDUTEGIA: 10 – 22. EROSKETA KARTA. EPEKAKO FINANTZAKETA/SALMENTA. ETXERA BIDALTZEA. BIDAI AGENTZIA. ASEGURU ZENTROA. KAFETEGIA... ETA EL CORTE INGLES-EN GARANTIA: KONFORME GERATU EZIK, DIRUA ATZERA ITZULIKO DA.
GUREKIN HITZ EGITEKO: 901 122 122

www.elcorteingles.es INTERNETEKO DENDA HANDIA


AIRETIK ATERATAKO
ERRETRATUAK
SALGAI!
Eskatu zeurea!
Informa zaitez
943 744 112 telefonoan.


GIDA KOMERTZIALA
2009-2010
Gida komertziala prestatzen ari gara.
Zure negozioaren telefonoa agertzea nahi baduzu,
deitu zenbaki honetara:
943 743 704
edo helbide honetara idatzi:
barren.publi@elgoibarkoizarra.com

grupo eibar
inmobiliario
San Frantzisko kalea, 44 behea
Tel.: 943 748 002 / 689 236 537

**Oso pozgarria izango litzateke urte berria geure etxeetan hasiko bazenute.**

Grupo Eibarrek Gabon zoriontsuak opa dizkizue.

Urtarrilean emango ditugu giltzak!



Garaiz zabiltza oraindik luxuzko etxebizitza bat eskuratzeko, alde zaharretik oso gertu, eta zerbitzu guztiak esku-eskura dituena.

Informazio gehiagorako, bisitatu www.grupoeibar.com
edo deitu 943 316 611 // 689 236 537

# ELGOIBARKO UDALAK JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUE HERRITAR GUZTIOI

## Gabon Zaharretako Feria









## ABENDUAK 26 LARUNBATA

"Gabonetarako eduki prest euskal jantzia"

Elgoibarko Udala
eta Kultura Saila

Eusko Jaurlaritza